



**HAL**  
open science

## “Aditz bakarraren” teoria XIX. mendeko euskal gramatikagintzan

Ricardo Gómez

► **To cite this version:**

Ricardo Gómez. “Aditz bakarraren” teoria XIX. mendeko euskal gramatikagintzan. 2005. artxibo-00000023

**HAL Id: artxibo-00000023**

**<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00000023>**

Submitted on 12 Oct 2005

**HAL** is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

# “Aditz bakarraren” teoria XIX. mendeko euskal gramatikagintzan

Ricardo Gómez  
(UPV/EHU eta “Julio Urkixo” Euskal Filologi Mintegia)

## 1 Sarrera\*

Lan honetan XIX. mendeko zenbait gramatkarik euskal aditzari buruzko azterketetan nola edo hala “aditz bakarraren” teoria deitu izan dena nola adierazi eta erabili zuten azaldu nahi nuke. “Aditz bakarraren” teoria aurreneko aldiz Port-Royaleko *Grammaire générale et raisonnée* lanean (1660) azaldu zen. Port-Royaleko lanek hizkuntza guztiek batera dituzten ezaugarriak aztertu zituzten, *gramatika orokorra* deitu ohi den joerari bide egin ziotelarik. Artikulu honi hasiera emateko, XIX. mendea arteko gramatikagintzak euskal aditza aztertzeke erabili zituen irizpide nagusiak laburtuko ditut, atari gisa (§2). Jarraian, gramatika orokorraren eta, haren barruan, aditz bakarraren teoriaren azalpen laburra emango dut (§3). Ondoren, zenbait adibide eskainiko ditut, aditz bakarraren teoriak XIX.eko euskalaritzan izan zuen lekuaren agerpen aski zabala erakusteko asmoz: Humboldten lehen urratsak (§3); Darrigolen formulazio oraindik anbigua (§5); Abbadie (§6), Chaho (§7) eta Inchauspere (§8) aldezte garbia; Bonaparteren aditz-teoria bihurrian izan zuen leku nabaria (§9), eta, azkenik, Azkueren (§10) eta Arana-Goiriren (§11) lekukotasun berantiarak. Ondorioek (§12) emango diote buru artikuluari.

## 2 Euskal aditzaren sailkapenak XIX. mendea arte

Jakina denez, euskarak adizki sintetikoak eta adizki analitikoak ditu (azken hauei “perifrastiko” izena ere eman ohi zaie).<sup>1</sup> Aditz-forma perifrastiko bat adizki jokatu batek eta laguntzaile batek osatzen dute; lehen osagaiak aspektu-marka bat har dezake eta bigarrenak, aldiz, pertsona eta numero komunztadura-hizkiak eta denbora eta modua adierazteko morfemak hartzen ditu. Joko perifrastikoak modu eta aspektu bereizketa

---

\* Artikulu hau *III Congreso Internacional de la Sociedad Española de Historiografía Lingüística* biltzarrean (Vigo, 2001eko otsailak 7-10) aurkeztutako komunikazioaren (Gómez 2002) euskarazko bertsio oso zabaldua da. Halaber, 1/UPV/EHU 00106.130-HA-8117/2000 eta BFF2002-03132 ikerketa proiektuen babespean burutu ahal izan da.

<sup>1</sup> Deitura hau Arturo Campiónen gramatikan (1884) agertzen bide da lehen aldiz, nahiz egile honek “perifrásico” terminoa darabilen.

gehiago aurkezten ditu, baita aditzarekin komunztatzen diren argumentuen — absolutibo, ergatibo eta datiboaren— arteko konbinaketa posible guztiak ere. Aitzitik, joko sintetikoak ez du aspektu bereizketarik onartzen eta, pertsona-komunztadura anizkuna onartzen badu ere, halako adizkiak oso gutxi erabiltzen dira; bestalde, joko sintetikoaren erabilera atzeraka joan da euskararen historiaren hasiera-hasieratik bederen.

Paradigma perifrastikoaren aberastasun eta erregularitasun handiagoa dela eta, euskal gramatikari gehienek —Larramendirekin hasi (1729) eta, salbuespen bakanak gorabehera, XIX. mendearen bigarren erdia arte— joko perifrastikoa euskaraz berezkoa zela pentsatu zuten; joko trinkoa, berriz, Larramendiz geroztik *irregular* deitu izan zena, bigarren mailakotzat eta berriagotzat hartu zuten.<sup>2</sup> Hala ere, gaur egun euskararen historiaz dakigunaz baliaturik, badakigu gauzak bestela gertatu zirela (cf. Gómez & Sáinz 1995, Trask 1997).

Joko perifrastikoaren gailentasuna aldarrikatu zutenen aldean, Oihenart dugu aditz trinkoen jatorria aldeztu zuten autore bakan horietako bat eta lehena. Zuberotarrak ohiko zehaztasun eta zorroztasunez aztertu zituen euskal aditz-joko motak, bi joko bereizi zituelarik, bata berezkoa edo jatorra (hots, trinkoa) eta bestea jatorra ez dena (perifrastikoa, alegia):

Duae sunt coniugandi formae. Altera *Propria*, Altera *impropria*, quae fit per circumloquutionem. *Propria* est cum verbum per seipsum inflectitur, absque vlllo alterius vocis adminiculo, vt à themate ek'us, id est, vide, fit *Decussat* video, *decussac* vides *decussa* videt, *decussagu* videmus, *decussasue* videtis, *decussate* vident. *Necussan* videbam &c. *Coniugatio Impropria* est cum verbum coniugatur, non per se, sed *circumloquutione*, per participium suum & verbum substantium *nais* hoc est sum & eius auxiliare *adi*, si verbum sit *passiuum* vel *neutrum*, Actiuum vero per verbum possessiuum *dut*, hoc est, habeo, & eius auxiliare *esac* vt, *Eziten nais* iaceo, *Sehazen* vel *Sehatu nais* caedor, *Ecusten dut* video. Vtraque coniugatio *quinque* habet modos, *Indicatum*, *Imperatum*, *Optatum*, *Conditionalem*, & *Subiunctiuum*. (Oihenart 1656: 63)

Bidenabar esanda, aurreko pasartean Oihenartek lau laguntzaile bereizten ditu: haietako bi aditzak ere badira (*naiz* eta *dut*) eta beste biak aurrekoen laguntzaileak (*adi* eta *ezak*, hurrenez hurren). Laguntzaile bakoitzaren erabilera esparrua ere ondo zehazten du (Oihenart 1656: 69).

---

<sup>2</sup> Joko perifrastikoaren jatorriaren aldeko eta kontrako zerrenda baterako, ik. Gómez (1989: 361).

Esan bezala, Larramendi da, bestalde, joko perifrastikoaren jatortasuna aldeztu zuen lehena eta, jesuitaren eragin handiari esker, haren ikusmoldeak luze iraun zuen euskal gramatikagintzan. Larramendik adierazten du (1729: 43) aditza aztertzeko eta sailkatzeko erabili ohi den terminologiarekin erabat ados ez dagoela, alabaina besterik ezean erabiliko badu ere. Funtsean, honako hau da proposatzen duen euskal aditzen sailkapena:

Supongo, que el Bascuence tiene verbos activos, passivos, y neutros; y estos son regulares, è irregulares: nombres, cuya significacion se explicará en sus lugares. (Larramendi 1729: 43-44)

Larramendik “erregular” deitzen die perifrastikoei eta “irregular”, trinkoei. Hauxe da azken deitura honen arrazoa: “Llamo irregulares à estos verbos, assi por que sus tiempos son simples, y no compuestos, como tambien por que su inflexion no corresponde à la raiz, de donde nacen” (Larramendi 1729: 233). Izan ere, Larramendik joko bakuna eta joko elkartua ere bereizten ditu hizkuntza baten aditzetan:

En una Lengua la conjugacion del verbo puede ser simple, y compuesta. La conjugacion simple se llama aquella, cuyas inflexiones son sencillas, y de una sola dccion: la compuesta de dos, ò mas dcciones. [...] Pues hablando de las Conjugaciones regulares del Bascuence, digo, que todas son compuestas, y ninguna simple, por que todas sus inflexiones constan de dos, y tres dcciones. Componense de dos generos de dcciones: unas son los varios modos de infinitivo, y otras son las terminaciones del verbo, y de la varia combinacion destas dcciones resulta la variedad de los tiempos. (Larramendi 1729: 44-45)

Larramendi haratago doa eta, tubalismoari atxikirik, proposatzen du hizkuntza erromantzeek —gaztelania, frantsesa eta italiara<sup>3</sup> aipatzen ditu— adizki elkartuak euskaratik hartu zituztela, grekoan eta latinean halako adizkirik ez izaki:

De lo dicho infiero yo, que el Romance, y las demás Lenguas hijas del Latin, como imitaron, y aprendieron de su Madre la Conjugacion de los tiempos simples, assi imitaron, y aprendieron del Bascuence la Conjugacion de los tiempos compuestos, y por consiguiente deben tambien recurrir al Bascuence por su genealogia en esto, como otras prendas varias. (Larramendi 1729: 46-47)

---

<sup>3</sup> Oroit bedi Larramendik, euskararen beste apologista batzuek bezala, iberiarrak Italian ere izan zirela baieztatu zuela eta, beraz, iberiarrak euskaldunen arbasotzat hartzen baitzituen, Italiako biztanleek euskararekin harremanak izan zitzaizketen. Erromantzezko forma batzuk euskaratik datozeelako proposamena Larramendik *Hiztegi Hirukoitzean* erabilitako etimologietan aurkituko dugu behin eta berriz (ik. Urgell 2000).

Laguntzaileez (*terminaciones*) den bezainbatean, Larramendik aditz aktiboak eta neutroak bereizten ditu, eta aktiboen barnean, absolutuak eta iragankor edo erlatiboak:

Las terminaciones unas son del verbo activo, otras son del neutro. Destas ablaremos en su lugar. Las terminaciones auxiliares del activo unas son absolutas, otras son transitivas, ò relativas: las absolutas se llaman assi, por que no embeben, ni dicen algun respecto, ù orden à ninguna persona del singular, ni plural: las transitivas se llaman assi, por que dicen, y conotan una transicion, ò relacion à alguna de las personas. Las absolutas son de dos generos, y no mas: el primero rige, ò embebe regimen de singular, y el segundo de plural. Las transitivas son de veinte y una especies, por veinte y una relaciones, que puede tener la accion verbal. (Larramendi 1729: 56-57)

Alegia, laguntzaile aktibo absolutuak *det* eta *ditut*-en paradigmek osatuko lituzkete eta aktibo iragankorrak, NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK erakoek. Beste alde batetik, laguntzaile neutroetan joko absolutu bakarra dagoela (*naiz*) eta zazpi erlatibo edo iragankor, NOR-NORI erakoak, diosku gero (1729: 164-165).

Hasieran iragarri duen bezala, Larramendik darabiltzan sailkapena eta terminologia tradizionalak dira (halako terminoen historiarako, ik. Gómez Asencio 1985). Hau dela eta, ez da ohartzen euskararen laguntzaileek dituzten erro desberdinez —edo ez die garrantzirik ematen— eta, beraz, erdal sailkapenean oinarrituta, laguntzaileen banaketa bitarra egiten du funtsean: *naiz* (neutro eta pasiboetan) eta *det* (aktiboetan). Nolanahi ere den, sailkapen eta terminologia hau izango da, neurri handi batean, XIX. mendea arte (eta XIX.ean bertan ere) euskalari gehienek erabiliko dutena.

Aditzaren sailkapen tradizionalaren beste adibide bat Harrietena (1747) dugu. Haren gramatikaren lehenbiziko zatian, euskaraz idatzitakoan, ez du gai honetaz xehetasun askorik ematen. Alabaina bigarren zatian, frantsesez idatzian, euskarari buruzko oharrak ere ematen ditu eta bertan agertzen dira, hain zuzen, aditzari buruz espero litezkeen azalpenak eta sailkapen bitarra:

Dans la langue Basque d'ordinaire les verbes sont reguliers, sans qu'elle en ait d'irregulier ni d'impersonnel, & elle les fait en deux mots comme, *nic ematen dut*, je donne, [...] elle a deux conjugaison, les verbes dont l'une est composée desdits quatre infinitifs desdits participes passifs & d'un mot *Naiz*, &c. pour faire le substantif, le passif; & ceux qui prennent leur place. [...] & l'autre conjugaison se fait moyennant les quatre infinitifs, les participes passifs, & d'un autre mot *dut*, &c. qui sert pour faire tous les verbes actifs,... (Harriet 1741: 480)

Bada, halere, puntu harrigarri bat Harrieten lanean. Liburuaren amaieran dagoen “Escualdunei gomendioa eta Abisua”-n, Harrietek, besteak beste, idatzi berri dituen bi

libururen berri ematen du. Lehena maisurik gabe euskaldunek frantsesez irakurtzen ikas dezaten idatzi du, eta bigarrena, bi partetan:

lehenbicioa eskuaratik verbo gaitz eta erreguelan ez diren batçuen khenceco, hala nola *nago, noha, darasat, &c.* horlaco haiñitz, erreguela gabe dire, eta erreguelacoac dire *egoten naiz, goaten naiz, erasten dut, &c.* (Harriet 1741: 507)<sup>4</sup>

Eta, egia esan, gramatika guztian zehar Harrietek ez ditu aditz trinkoak behin ere aipatzen. Honen kariaz, agian Harriet garbizaletasunaren aitzindaritzat har genezake arlo honetan. Baina, zehazkiago jotzen badugu, ohartzen gara XX. mende hasierako garbizaleen alderantzizko joera hartzen duela, perifrastikoen aldekoa alegia, eta, beraz, trinkoak desagerrarazi nahi dituela; aranatarrek, ordea, trinkoen antzinatasun eta jatortasunean sinisten zuten eta, ondorioz, joko trinkoa beste aditz batzuetara hedatu eta orokortu nahi izan zuten (Plazaola 1999).

### 3 Gramatika orokorra eta aditz bakarraren teoria

Gramatika orokorra, aise eta laburki esateko, hizkuntza guztien arazo orokorrei buruzko hausnarketa da; aurreneko formulazioetatik batez ere irizpide logikoetan oinarritu zen, harrezkero korrante filosofikoaren arabera “arrazoia” edo “izadia” etiketez hornituko ziren irizpideetan (cf. Auroux & Clérico 1992, Dominicy 1992). Gramatika orokorraren tradizioan beste deitura batzuk erabili —eta sarritan nahastu— dira: *gramatika filosofikoa*, *gramatika arrazoitua* eta, Ingalaterran batez ere, *gramatika unibertsala*. Euren berezitasunak gorabehera, autore guztiok bilduko dituen haxe da: gramatikaren hatsarreak ideien jatorriari buruzko dotrina batetik eratortzen saiatzea.

Europako hizkuntzalaritzaren historian honelako hausnarketek tradizio luzea zuten: Erdi Aroaren amaieran, latinean oinarrituz, *modistae* izeneko filosofo eskolastikoeek hizkuntza guztiek funtsean gramatika berdina zutela baieztatu zuten. Orobatsu, Humanismoaren garaiko zenbait gramatikari filosofok (Scaligerok, Sanctiusek, Vossiusek, Campanellak, etab.). Baina gramatika orokorrari erabateko ospe eta arrakasta eman zizkionak Paris ondoko Port-Royal komentu-eskolan egindako lanak izan ziren: *Grammaire générale et raisonnée* (Arnauld & Lancelot 1660) eta *La logique*

---

<sup>4</sup> Bigarren partea, bidenabar, euskaldunek beste hizkuntzetarik hartu dituzten hitzak kentzeko dela dio.

(Arnauld & Nicole 1662), hain zuzen ere.<sup>5</sup> Port-Royaleko lanek helburu bikoitza bete nahi zuten: batetik, hizkuntzaren arau orokorrak aurkeztea eta, bestetik —baina aurrekoarekin loturik—, edozein hizkuntza partikular aise eta laster ikasteko gida lortzea. Neurri handi batean Descartesen arrazionalismoan oinarritu baitziren, Port-Royaleko autoreen lanak honako premisa honetatik abiatu ziren: hizkuntza giza gogoaren eragiketen isla da eta, hortaz, gramatika ere bai. Ondorioz, gizaki guztiengan gogoaren funtzionamendua berdina bada, gramatika ere berdina izango da ororentzat. *Gramatikan* eta *Logikan* Port-Royaleko autoreek garatu zituzten analisisetan xeheki jarduteko tokia ez delarik, oraingo honetan bi arazo bakarrik nabarmendu nahi nituzke, perpausaren analisia eta aditz-teoria hain zuzen ere.

Perpausaren analisiari dagokionez, Port-Royaleko logikak giza gogoaren lau eragiketa bereizten ditu; eragiketa horietako batzuek paralelismo garbiak erakusten dituzte gramatikaren unitateekin (Arnauld & Nicole 1662: 27-28). Hauexek dira eragiketok:

- a. Bururatzea (*concevoir*): gogoari aurkezten zaion zerbaitetan arreta jartzea; aurkezpen bakoitzari ematen diogun moldea *ideia* bat da.
- b. Juzgatzea (*iuger*): bi ideia batzea, norbaiti bururatu zaiona halakoa dela, edo halakoa ez dela, baieztatzea. Judizioa, hortaz, proposizioa ere bada.
- c. Arrazoitzea (*raisonner*): bi judizio baliatuz, hirugarren bat eratzea.
- d. Ordenamendua (*ordonner*): zenbait ideia, judizio eta arrazoiketaren hurrenkera, gai bat ezagutzeko modurik egokienean antolatua; hautatzen den moduari *metodo* deritzo.

Hauetarik aurreneko biak dira bereziki interesatzen zaizkigunak: Lehenik, ideien bururatzeak funtsezko eginkizuna betetzen du perpaus-atalen sailkapenean. Izan ere, Port-Royaleko gramatikak hitzen sailkapen bitarra ezartzen du, hizkuntza guztientzat balio duena, jakina: alde batetik, gure pentsamenduen objektuak adierazten dituzten hitzak ditugu eta, bestetik, gure pentsamenduen itxura edo modua adierazten duten

---

<sup>5</sup> Port-Royaleko lanez, ik. besteak beste, Harnois (1929), Donzé (1967), Auroux & Clérico (1992), Dominicy (1992) eta Wheeler (1995).

hitzak. Lehenbiziko kategorian izenak (hala substantiboak nola adjektiboak), artikulua, izenordainak, partizipioak, preposizioak eta adberbioak sartzen dira; bigarrean, aditzak, juntagailuak eta interjekzioak.

Bigarrenik, Port-Royaleko autoreentzat gogoaren eragiketa nagusia judizioak egitea da; hots, bi ideia batzea, euren arteko identitatea baieztatzeko edo ezeztatzeko ( $A \equiv B$  edo  $A \neq B$ ). Ildo honetan, hitz egitea proposizioen bitartez judizioak adieraztea baino ez da. Perpausa proposizio bat da eta proposizioa bi ataletan banatzen da: subjektua eta atributua; biak dira gure gogoaren objektuak, bi ideia dira. Subjektua eta atributua kopularen bitartez batzen dira, kopularen eginkizun bakarra batasun hori baieztatzea delarik.

Aditz-teoriaz den bezainbatean, eta azaldu berri dudana proposizioaren egiturarekin zuzenean loturik, Port-Royaleko autoreen ustez aditza baieztatzeko erabiltzen den hitza da. Horregatik, dagoen aditz bakarra kopula da (hots, *da*). Ikuspuntu honen arabera, “aditz” deitu ohi diren gainerako hitzak banako konplexuak lirateke, bertan baieztapenari beste adieraren bat gehitu zaiolarik: subjektua (*naiz*), atributua (*Peru dabil = Peru ibiltari da*) edota denbora (*zen*). Horrela bada, aditzen arteko funtsezko banaketa bitar bat ezartzen da: aditz “substantiboa” (benetako aditz bakarra, baieztapen hutsa, kopula alegia) eta aditz “adjektiboak” (gainerakoak). Jakina, banaketaren oinarrian azterketa logiko bat hizkuntzen gramatikara hedatzea dago: logikaren ikuspuntutik *izan* aditza bakarrik *da beharrezkoa*; ondorioz, *izan* aditza bakarrik *dago* giza hizkuntzetan.

Port-Royaleko lanek arrakasta eta eragin handia izan zuten XVIII. mende osoan eta XIX.aren zati batean, bereziki Frantzian, non hizkuntzalaritza historiko-konparatzailearen nagusitasuna aski berandu iritsi baitzen. Baina, hizkuntzalaritza historiko-konparatzaile berria Alemaniatik gainerako herrietara zabaltzen zen heinean, gramatika orokorraren pisua eta omena apalduz joan ziren. Nolanahi ere den, XVIII. mendean zehar gramatika orokorraren helburuak eta formulazioak aski aldatu ziren, lehenbizi entziklopedisten eraginez (Beauzée, du Marsais), geroago filosofo sentsualisten eskutik (Condillac nagusi) eta, Frantziako Iraultzaren ondoren, ideologoen bitartez (Destutt de Tracy, Maine de Biran, Thurot eta Garat euskalduna, besteak beste).



Aditz-teoriari dagokionez, urte haietako autoreen berrikuntzarik nabariena honakoa da: aditz substantiboak ez du jadanik “baieztapena” adierazten, “existentzia” baizik.

Azkenik, ohartarazi behar da gramatika orokorraren metodo logiko-arrazionala eta haren argudiatze motak hizkuntza jakinen gramatikak ontzeko ere erruz erabili izan zirela. Gehienetan, haatik, ez ziren lan horietan hizkuntza guztien ezaugarri komunak bilatu nahi, baizik eta delako hizkuntza hark arrazoiaren eta logikaren legeei men egiten ziela frogatu. Gramatika-molde honetan sartu behar ditugu, hain zuzen ere, XIX. mendean gramatika orokorraren urratsei nola edo hala jarraitu zieten euskal autoreak. Agian, salbuespen bakarra Astarloa litzateke, bera baita euskarari buruzko gogoetak hizkuntzaren azterketa orokor baterantz bideratu zituen egile bakarra, era berezi batean izanda ere (ik. Gómez 1999). Bestalde, gramatika orokorraren eragina jaso zuten euskalari gehienak, espero zitekeenez, Ipar Euskal Herrikoak ziren eta, beraz, frantziar tradizioa zuzenean jaso zuten.

#### 4 Humboldt

Euskalaritzan aditz bakarraren teoriaren aurreneko agerraldi gisa har genezakeena Wilhelm von Humboldtek alemanez idatzitako euskal gramatikaren zirriborroan (Humboldt 2001) aurkitu ahal dugu:

2. (14.) Verba in dem Verstande, als unsere Sprachen, hat die Vaskische eigentlich gar nicht. Sie besitzt bloß eine Art# Hilfsverba, vermöge welcher sie alle übrige bildet; geradezu als sagten wir, statt ich esse, schlafe, stehe, immer ich thue essen, schlafen, stehen, und auf ähnliche Weise, als das Englische to do gebraucht wird. Nur dies Hilfsverbum ist in/378/der grammatikalischen Bedeutung des Worts ein Verbum, der übrige Zusatz ist bald ein wahres Adjectivum, bald ein mit /379/ einer Praeposition verbundenes Substantivum (Gerundium), bald der unbestimmte Begriff der Handlung überhaupt (In/380/finitiv) bald noch etwas andres. Dies einzige Verbum der ganzen Sprache verrichtet allen Dienst, dessen der Redende bedarf, u. erhält durch den Zusatz jedesmal seine bestimmte Bedeutung. Det, allgemein, ich thue, handle, bin beschäftigt, jaten det, ich bin beschäftigt im Essen, ich esse, ilten det, im Tödten, ich tödte, u.s.f.

Ohar bedi, haatik, laguntzaile (*Hilfsverbum*) bakarraz mintzo dela, eta ez aditz bakarraz. Bestalde, aurreko pasartearen ondotik datozen lerroetan Humboldtek aditz trinko bakan batzuk daudela adierazten du eta irregularrak (*unregelmäßige*) deitu ohi direla gehitzen du.

Halarik ere, Adelung eta Vater-en *Mithridates*-i egindako zuzenketa eta eransketetan, bestelako iritzia agertzen du. Lan honetan Humboldt nabarmenki urruntzen da Larramendik abiarazi zuen tradiziotik, joko irregularra “la más antigua y originaria sin

duda alguna” dela adierazten baitu (Humboldt 1817 [1933-34: 98]). Era berean, Humboldték honako formulazio hau hobesten du: “La lengua vasca no tiene, estrictamente hablando, más que una sola conjugación” (1817 [1933-34: 97]) eta ez du aditz bakar baten alde jotzen duela inon adierazten. Areago dena, euskal aditz-jokoa aurkezten duelarik, *aditz* deitzen die forma jokatugabeei eta, ildo honetatik, Astarloak proposatu zuen analisiari orpoz orpo jarraitzen dio, alegia euskaran edozein hitz aditz bihur daitekeela *-tu* atzizkia gehituz gero.<sup>6</sup> Hortaz, Humboldték arazo honen gainean zuen jarrera ez zaigu nahi bezain argia agertzen.

Humboldten aurreneko aipuari berriro bagagozkio, azpimarratu nahi nuke bertan autore prusiarrak *Zusatz* (‘gehigarri’) deitzen duena —hau da, adizki perifrastiko baten forma jokatugabea— noiz adjektibo bat, noiz preposizio batekin lotutako izena (gerundioa), noiz ekintza bat oro har adierazten duen zerbait (infinitiboa), noiz besterik dela zehazten duela. Humboldték gaingiroki azaltzen duen proposamen hau aztertuko dudan hurrengo autoreak, Darrigolek, askoz xehekiago garatuko du. Zernahi gisaz, Darrigolen ideien iturria ezin izan zen, inola ere, Humboldten baieztapena, prusiarraren eskuizkribua ez baitzuen ezagutzerik izan.

## 5 Darrigol (1827)

Euskal gramatikaren analisi arrazoituari ekiteko, Darrigolek gramatika orokorraren hatsarreetan oinarritzen da, edo berak dioen moduan “hizkuntzaren oinarrizko hatsarreetan” (1827: “Préface”, zenbatu gabe). Hala, Darrigolek aditzaren ondoko definizio hau ematen du: “l’on convient généralement que sa fonction essentielle est de lier l’attribut au sujet, de former le noeud de la proposition: de là vient que tous les

---

<sup>6</sup> Cf. “Los adverbios de cualquier naturaleza que sean, los pronombres, los numerales, en una palabra, cuantas voces tiene un idioma, cuantas son sus inflexiones, tantos son los verbos que pueden formarse, operación que necesariamente ha de presentar en la voz la idea más perfecta de su signado” (Astarloa 1883 [1805]: 692). Ik. orobat hemengo Gómez (1996).

Bide batez, Astarloak espresuki idatzi zuen aditz bakarraren teoria aldeztu zutenen kontra, edo lehen hizkuntzan aditz bakarra zegoela aldeztu zutenen kontra gutxienez: “Es verdad que los filósofos, especialmente modernos, quieren que no hubiese verbos inflexionados en el mundo primitivo, fundándose en que un verbo en inflexion no es otra cosa que un participio con el *sum es fui*, esto es, un participio que es el atributo, y el *sum es fui* ó el verbo *ser* que une á dicho atributo con el sujeto. Dicen que la expresion *los hombres aman* es lo mismo que *los hombres son amantes: los hombres amaban* equivale á *los hombres eran amantes: los hombres amaron* vale lo mismo que *los hombres fueron amantes*. Acerca del modo con que hubo de inflexionar sus verbos el idioma primitivo, hablaremos en su lugar y allí rebatiremos esta opinion en la parte que nos pareciese opuesta á la filosofia” (Astarloa 1883 [1805]: 433).

siècles l'ont appelé unanimement *propositionis copula*" (1827: 89). Alabaina, harrigarriro, honelako definizio bat harako Port-Royaleko *Grammaire*-n eman zen harekin lotuagoa dagoke, Darrigolek darabiltzan iturri nagusien definizioekin baino.

Euskalari zaharren artean apaiz lapurtarra dugu aditzaren izaerari buruz zuen iritzia arrazoitzeko leku gehien eskaini zuena, auziaren inguruko hurrengo lanen oinarriak finkatu zituelarik. Gainera, ikusiko denez, Darrigolen lana aztertuz gero, nabariki konturatzen gara Port-Royaleko lanetan eta gramatika filosofiko batzuetan azterketa *logiko-semantiko* bat besterik ez zen aditz bakarraren teoria, euskarari ezarri ziolarik, azterketa *formal* ere bihurtzeko aukera ezin hobea eskaini nahi izan zuela. Hau dela-eta, ez dirudi lekuz kanpokoa denik Darrigolek aditz bakarraren teoriaren inguruan aurkeztu zituen ideiak ondoko lerroetan xeheki azaltzea.

Hasteko, Darrigolek adierazten du mundu zabaleko hizkuntzetan aditz guztiek, *izan* aditza salbu, atributu jakin baten ideia osagarria (*idée accessoire*) barneratzen dutela eta honek aditzaren benetako izaeratik urruntzen dituela:<sup>7</sup>

Ainsi *lego* n'est qu'une formule abrégée de *legens sum ego*: ce n'est pas la pure nature du verbe. On doit raisonner de même sur tout verbe français, latin, grec, &c., à l'exception du verbe *être* seulement: celui-là seul, si nous en croyons M. Beauzée, présente "la pure nature du verbe en général". Tout autre verbe, selon le même auteur, "renferme de plus dans la signification l'idée accessoire d'un attribut déterminé." (Darrigol 1827: 90)

Honelako sistema batean adizkiak forma laburtuak direla deritzo, solasaldi laster eta etorri bati ondo dagozkionak. Haatik, oztopo handiak ere badituztela uste du: atributua eta kopula hitz bakar batean nahasten dira; bestalde, horrelako sistema batek adizki asko eta askotarikoak sortzen ditu, maiz irregularrak, eta, beraz, arrazoiaren kontrakoak dira (Darrigol 1827: 91).

Aitzitik, sistema bakun eta perfektu batek *izan* aditza besterik ez luke erabili behar eta horixe da, hain zuzen ere, Darrigolek euskarari aurkitzen duena.<sup>8</sup> Horretarako,

---

<sup>7</sup> Cf. orobat: "Ainsi *je lis* est la même chose que *je suis lisant*; et dès lors l'expression *lis* ne présente pas la pure nature du verbe, mais un verbe avec l'idée accessoire d'un attribut déterminé" (Darrigol 1827: 90).

<sup>8</sup> Helburu apologetikoa begien bistan dago Darrigolen gramatika-lan guztian zehar, izenburutik hasita. Gramatika orokorraren oinarriak hizkuntza jakin bati ezarri nahi dizkioten autoreetan ohi den bezala, euren lanen bitartez delako hizkuntzaren bikaintasuna erakutsi nahi dute, zuzenean edo zeharka. Darrigoli dagokionez —eta baita ondorengo beste zenbait autoreri ere—, gramatika-azterketekin batera euskararen

Darrigolen abiapuntua *infinitibo* deitzen direnak euskaraz bederen aditzak ez direla eta benetan izen-klasekoak direla pentsatzea da:

tous les mots qui répondent à ce qu'on appelle ailleurs infinitifs des verbes, sont de vrais noms dans notre langue; et, afin que le lecteur se familiarise avec cette assertion, il est bon de lui rappeler qu'elle se vérifie plus ou moins parfaitement dans chaque idiome. (Darrigol 1827: 93)

Izan ere, Darrigolek hizkuntza askotan<sup>9</sup> infinitiboek duten izentasuna frogatzeko adibideak ematen ditu, irizpide distribuzionalak, funtzionalak eta formalak erabiltzen dituelarik:

- a. Distribuzionalak: infinitiboa artikularekin batera ager daiteke; latinez izen deklinatu baten lekua bete dezake, edozein kasutan agertzen delarik ere.
- b. Funtzionalak: infinitiboak perpaus baten subjektu edo osagarri izan daitezke.
- c. Formalak: arabieraz edo sirieraz infinitiboek izenei dagozkien hizkiak har ditzakete.

Infinitiboek eta izenek forman eta esanahian dituzten antzekotasunak aintzat hartu ondoren, infinitiboak eta aditzak zertan bereizten diren zehaztea da hurren zeregina: hala, infinitibo batek ideia orokor eta zehaztugabe bat (“vague et indéterminée”) aurkezten du; aitzitik, aditzak bakarrik eskaintzen du proposizio edo judizio bat eratzeko behar den indar elkartzaila (“la force unitive”, 1827: 97). Beste alde batetik, ordena naturalak eskatzen du lehenik ideia orokorra aurkeztea eta, ondoren, zehazena. Horrexegatik doa infinitiboa aditza baino lehen (1827: 98).

Xehetasun hauek guztiak, dena den, Darrigolek euskal infinitiboari buruz duen teoria aurkezteko atarikoak baino ez dira. Haren abiapuntua Beauzée (1767) *action*, *acte* eta *passion* adigaien artean egindako bereizkuntza da. Bakoitzaren definizioa ematen du Beauzée eta, beraietan oinarriturik, Darrigolek uste du *acte* forma abstraktuena dela eta *radical*arekin lotzen du (hau da, *as* ‘has’ aditzoinarekin), *action* “infinitibo aktibo” deitzen duenarekin (*aste* aditz izenarekin) eta *passion*, azkenik, “infinitibo pasibo” delakoarekin (*asi* partizipioarekin, alegia):

---

antzinatasunari eta balizko perfekzioari buruzko iritziak aurkitzen ditugu: “vestiges de son antique splendeur” direlakoak, hain zuzen (Darrigol 1827: 158).

<sup>9</sup> Darabiltzan hizkuntzak honako hauek dira: frantsesa, nederlandera, alemana, gaztelania, italiera, latina, grekoa, hebreera, arabiera eta siriera.

Ainsi le mot radical *as*, qui n'exprime que l'*acte*, ou un sens de *l'abstraction la plus complète*, est susceptible de deux formes qui en déterminent l'espèce grammaticale. Si ce mot radical se revêt de la forme active *aste*, il répond exactement à ce qu'on a coutume d'appeler infinitif; et c'est un nom d'existence, d'action ou d'état, un vrai nom, qui se décline, avec ou sans article, sur le tableau de déclinaison que nous avons déjà tracé: il n'a rien de commun avec les inflexions du verbe. Se ce mot radical prend la forme passive *asi*, il répond au participe passif, et se décline, avec ou sans article, sur le même tableau que la forme précédente, sans jamais devenir verbe, quoi qu'on puisse dire. (Darrigol 1827: 100-101)

Hortaz, Darrigolen ustez, aditzoinak “erabateko abstrakzioa” adierazten du; infinitibo aktiboa, aldiz, benetako izena da eta infinitibo pasiboa, partizipio bat; hots, ez da inoiz *aditz* izatera iristen. Horrela, bada, bi infinitibo forma hauek deklinatu ahal dira, bietarako adibideak ematen dituelarik.<sup>10</sup> Azken buruan, “les infinitifs basques sont restés dans la classe des noms, soit appellatifs soit adjectifs” (1827: 107).

Azterbide honen barruan, erraz aurreikusten da euskal adizki perifrastikoen zati diren forma jokatu gabeak izentzat edo partizipiotzat hartuko dituela Darrigolek, dagokion denboraren arabera deklinatzen direla edo ez esango duelarik:

- a. Orainaldiaz den bezainbatean, *erorten niz* “je tombe” adizkiari “je suis dans l'acte de tomber” analisia ematen dio; hau da, *erorte* infinitibo aktiboa kasu “positiboan” (=inesiboan) deklinatua.<sup>11</sup>
- b. Darrigolen iritziz, lehenaldiko *erori niz* “je suis tombé” honelaxe dago osatuta: *niz* aditza (“je suis”) eta *erori* partizipio pasiboa; *niz* aditzari buruz beheraxeago mintzatuko naiz berriz.
- c. Azkenik, Darrigolek adierazten du *erorico niz* “je tomberai” geroaldikoan partizipioa *-ko* amaieraren bitartez (Darrigolek “destinatibo” deitua) edo *-en* genitiboaren bitartez deklinatzen dela; biek adieraziko lukete etorkizunaren ideia.<sup>12</sup>

---

<sup>10</sup> Besteak beste, *baratce* (‘gelditze’) / *baratce* (‘soro’) eta *aci* (‘hazi’) / *aci* (‘ale’) adibideak darabiltza distribuzio berdina dutela erakusteko. Gainera, *erortean*, *jatetic*, *edanic*, *hastera*, *ikhusiz* bezalako formak ere infinitiboa edo partizipioa gehi deklinabide kasuak direla adierazten du (Darrigol 1827: 101-105).

<sup>11</sup> Cf. “le mot *erorten*, qui exprime l'action de tomber, n'est pas un verbe, mais bien un nom au cas positif” (Darrigol 1827: 105).

<sup>12</sup> Darrigolek (1827: 106) destinatiboa gaztelaniazko *está por llegar* gisakoekin erkatzen du. Eta analisi honek nahiko egiantzekoa dirudi. Oroit bedi, Mitxelenak euskal adizki perifrastikoen eraketa auzoko hizkuntza erromantze eta germaniarren aditz sistemekin konparatu zuen eta bilakabide paralelo bat gertatu zela ondorioztatu: “El paralelo pasa por las formas analíticas, llamadas entre nosotros perifrásticas, del verbo, tanto en *perfectum* como en futuro: *etorri da*, *egin du*, *est venu*, *ist gekommen*

Honen guztiaren ondorioz, Darrigolek bi aditz besterik ez du onartzen euskaran, *n(a)iz* eta *dut* izendatzen dituenak;<sup>13</sup> orobat, iradokitzen du biak, azken buruan, aditz bakar baten bi aldaeratzat har daitezkeela, aditz bakarraren teoriara lerraturuz.<sup>14</sup> Formari dagokionez, lehen aditz motaren bereizgarria hasierako *n-* izatea da (subjektua markatzen duena; adibidean lehen pertsona singularrekoa, hain zuzen) eta bigarren motaren bereizgarria, hasierako *d-* izatea (hirugarren pertsonako objektua markatzen duena). Hortaz, *niz* edo *naiz* “formula” laguntzaile iragangaitzen ordezkaria litzateke eta *dut* “formula”, aldiz, laguntzaile iragankorrena:

Cette division, indiquée par le matériel des syllabes, est commandée par la nature et le sens de nos verbes: les uns (en *n*) ayant un sens affirmatif de la substance même de leur sujet, et les autres (en *d*) un sens affirmatif, non plus de la substance de leur sujet, mais de son action sur un autre. (Darrigol 1827: 108)

Il ne résulte pas seulement de ces observations, que les formules *niz*, *dut*, sont les deux verbes primitifs de notre langue; l'on doit en recueillir de plus que la nature du verbe ne se rencontre absolument que là où se trouve fondue en quelque sorte l'une desdites formules: ce qui nous conduit à cette dernière conséquence, que la langue basque n'a, à proprement parler, que deux verbes [...]. De là nos verbes sont deux. Le premier répond avec avantage au verbe substantif *être*, connu dans toutes les langues; et s'emploie dans tous les cas où il s'agit d'affirmer en quelque manière la substance du sujet. Le second est une sorte de verbe *avoir*, affirmatif de l'action la plus générale possible d'un sujet sur un autre. (Darrigol 1827: 109)

Ondoren, Darrigolek bi aditz hauen osagaiak aztertzen ditu, aditzak berez baieztapena adierazten duela frogatu nahian. *Niz*-ekin hasita, Darrigolek adierazten du mota honetako aditzak joka daitezkeela *ba-* aurrizkia (*prépositive*) lagun dutela edo ez dutela.

---

(ant. *es venido*) / *ha hecho, a fait, hat gemacht; joanen, joango da*, lit ‘es de ir’, *eginen, egingo du* ‘ha de hacer’” (Mitzelena 1981 [1987: 48]). Beste alde batetik, Darrigolek euskal adizki analitikoetarako eskaini zuen azterketa John Andersonen “hipotesi lokalistaren” oinarria izan zen. Andersonek, 70etako gramatika sortzailearen ereduari atxikita, ingelesaren eraikuntza progresiboetan predikazio lokatibo bat agertzen dela proposatu zuen (Anderson 1973).

<sup>13</sup> Honen antzeko sailkapen bikoitz bat proposatu zuen lehentxeago Fleury Lécusek (1826), nahiz eta autore honek aditz laguntzaileak bakarrik dituen hizpide eta ez du, beraz, aditz bakarraren teoriara hurbildu lezakeen ezer ere adierazten. Areago dena, Lécusek —lehenago Astarloak eta geroago Zabalak eta van Eysek bezala (ik. Gómez 1996)— euskaraz edozein hitz aditz bihur daitezkeela adierazten du, delako hitzari *-zea* atzizkia erantsiz gero (Lécuse 1826 [1987: 902]). Halako iritzi bat, jakina, ez dugu aditz bakarraren aldekoengan sekula aurkituko.

<sup>14</sup> Hain zuzen ere, Louis de Bonald-en ondoko aipamen hau baliatuz iradokitzen du: “L’*avoir* est une manière de l’être, et la plus générale possible... Être et avoir, idées fondamentales de l’être... Être et avoir, fondement de toutes les langues, qui sont l’expression de êtres” (*apud* Darrigol 1827: 109). Eta badirudi Darrigolen analisisan aditz bakarra ulertu zutela haren garaikideek eta gogaideek. Honelaxe adierazten du Campiónek (1884: 308), gai honi dagokionez: “se la [=Darrigolen aditz teoria — R.G.] puede considerar más como un unicismo mitigado que como un dualismo categórico”.

Aurrizki hau *bai* baieztapen-partikula besterik ez dela onartu arren, aurrizkidun adizkiari (*baniz*) “subjektuaren existentzia” esanahia egozten dio; aitzitik, aurrizki gabeko adizkiaren (*niz*) eginkizun bakarra perpaus bateko atributua eta subjektua lotzea litzateke:

avec la prépositive, ce semble, quand il est employé pour exprimer l'existence du sujet; et sans la prépositive, quand il n'a d'autre fonction que de lier l'attribut et le sujet d'une proposition quelconque. (Darrigol 1827: 110)

Bestalde, aurrizki gabeko forma honen osagaiak lehen pertsonako izenordaina eta kasu “mediatiboaren” (hots, instrumentalaren) marka lirateke: *ni + z*, alegia:

Les deux premières personnes *niz*, *hiz*, paraissent d'ailleurs n'être autre chose que les pronoms *ni*, *hi*, au cas médiatif, d'où il résulterait que les formules *ba-niz* pour *bai-niz*, et *ba-hiz* pour *bai-hiz*, signiferaient, mot à mot, *oui de moi*, *oui de toi*; façon de parler qui n'aura sans doute rien que de trivial, au jugement de la plupart des lecteurs, mais qui ne laissera pas d'avoir un vrai mérite aux yeux des meilleurs juges, en ce qu'elle rappelle l'enfance du langage. (*ibid.*)

Eta epaileon artean Court de Gébelin aipatzen du eta, nola ez, Lancelot eta “des autres grammairiens qui placent la nature du verbe dans l'affirmation” (*ibid.*). Azken batean, autore hauek bezalatsu, Darrigolek adierazten du benetako aditzaren osagaiak baieztapena eta pertsona direla eta, beraz, aditzak ez duela errorrik.<sup>15</sup>

*Niz*-en analisia burutzeko, Darrigolek ohartarazten du —bere ideiekin bat eginik— aditz honek ez duela modu infinitiborik, errorrik ez baitu. *Içan*, *içana* eta *içaittea*-k ezin dute modu infinitiboa osatu, forma hauek deklina daitezkeelako eta, gainera, “n'ont pas même des syllabes communes avec notre verbe substantif” (1827: 114).<sup>16</sup> Darrigolen iritziz, ustezko infinitiboak “nom[s] d'être ou d'existence” dira berez (*ibid.*); aditz substantiboak, berriz, baieztapena adierazten du nagusiki eta —beronen bitartez bakarrik— subjektuaren existentzia gero.

Jakina, Darrigolek uste du *dut*-ek ere ez duela infinitiborik, nahiz eta arrazoi praktikoak direla medio *avoir* itzuli ohi den. Aditzaren funtzio bakarria subjektuaren existentzia edo subjektuaren eta atributuaren lotura baieztatzea izaki, Darrigolen

---

<sup>15</sup> *Izan* aditzaren analisi honek mende erdi bat geroago errepikatuko du Charencey kondeak (Charencey 1873, 1874, 1875). Bestalde, Bonaparte printzeak ere onartuko du errorrik gabeko aditz bat bere *terminatifs purs* direlakoak azaltzeko (ik. *infra* §9).

<sup>16</sup> Baieztapen honen atzean, silabez eta ez erroez baliatzeaz gain (Chahok ez bezala), bistan da Darrigolek grafiarekin egindako jokia ere.

ikuspegitik aditza berez iragangaitza da. Baina erabilerak joko iragankor bat ere eman dio aditzari.<sup>17</sup> Joko honek subjektuak beste zerbaitekin edo norbaitekin duen erlazioa baieztatzen du:

Affirmer l'existence du sujet ou sa liaison avec l'attribut, étant les seules fonctions propres du verbe *être*, il est clair que ce verbe est essentiellement *intransitif*. Mais ce que sa nature n'exigeait pas, l'usage le lui donné; lui a donné, dis-je, une conjugaison *transitive*, selon laquelle il affirme son sujet avec relation à un autre. (Darrigol 1827: 118)

Erakutsi berri dudan analisi guztiaren ondorio zuzena delarik, Darrigolek proposatzen du aditz trinkoak (*verbes subalternes* izendatzen dituenak) *n(a)iz* eta *dut* aditzetariko bat eta forma jokatu-gabe bat konbinatzearen emaitza direla:

En effet, *nago* résulte de la combinaison de *naiz* avec *egon*: *naiz* avec *ibil* donne *nabila*; *naiz* avec *etor* fait *nator*. [...] car qui ne voit *dut erabil* dans *dabilat*, *dut eraman* dans *deramat*, *dut eraunts* dans *derauntsat*, &c.? (1827: 109)

Darrigolek ez du onartzen honelako formei “aditz irregularrak” deitzea. Larramendik (1729: 233) deitura horren alde eman zituen arrazoiak bi ziren: lehenik, bakunak dira, hitz bakar batez osatzen dira eta, aldiz, aditz “erregularrak” (hau da, perifrastikoak) elkartuak dira. Darrigol, bere jarrera filosofikoari atxikia, harritzen da bakuntasuna irregularizat hartzeagatik eta uste du Larramendiren eta ondorengo autoreen errakuntza infinitiboak aditzaren ataltzat jotzen dutelako gertatu dela; oroit bedi Darrigolen analisisian izenak edo adjektiboak direla, azaldu berri dudanez. Ondorioz, Larramendiren aditz elkartuak bakunak dira zinez eta, alderantziz, Larramendik-eta bakuntzat harturikoak “elkartuagoak” dira, beraietan jatorrizko aditzari (*niz*, *dut*) atributu bat erantsi baitzaio (Darrigol 1827: 139). Bigarrenik, Larramendik ez zuen lotura argirik ikusten forma trinkoen eta bakoitzari dagokion aditz-erroaren artean; Darrigolek ez du Larramendiren baieztapenaren aldeko inongo frogarik aurkitzen.<sup>18</sup>

Bestalde, Darrigolek ohartarazten du aditz irregularrez mintzatzeak esan nahi duela aditz-jokoak arau orokor batzuk dituela eta aditz batzuek ez dituztela arauak betetzen.

---

<sup>17</sup> Darrigolek “iragankor” terminoa nola erabiltzen duen ikusteko, ik. Gómez (2001: 175, 4. oh.).

<sup>18</sup> Andoingo jesuitak xehetasun gehiagorik ematen ez badu ere, badirudi *iduiqui* / *daucat* bezalako bikoteak dituela gogoan; izan ere, honelakoetan zaila gerta daiteke adizki trinkoa eta partizipioa formalki lotzea, are gehiago Larramendik baliatzen duen grafia sistema aintzat hartuz gero. Hala ere, baliteke —bigarren aukera bat eskaintzearen— egun aditz ez-ergatiboak deitzen direnez aritzea, hala nola *idurí*, *iritzí*, *iraquin*, *iraun(dí)*, etab.; Larramendik aditz neutroen artean sartzen ditu baina, jakina, euren jokoa aditz aktiboenei dagokie.



Aitzitik, Darrigolek nahiago du pentsatu aditz trinkoek, funtsean, jatorrizko bi aditzen jokabideari jarraitzen diotela, zeinek bere familiakoari eta salbuespen batzuk gorabehera. Beraz, *défectueux* terminoa hobesten du halako aditzak izendatzeko:

On les appellerait *défectueux* avec plus de sujet; car ils ne se prêtent pas en entier à la conjugaison transitive à régime double, ni même à tous les modes et à tous les temps de la conjugaison à un seul régime. (Darrigol 1827: 142)

## 6 Abbadie (1836)

Abbadie gazte bat<sup>19</sup> izan zen *Études grammaticales sur la langue euskarienne* (Paris, 1836) lanaren egilea —Chahorekin batera, baina beroni buruz hurrengo atalean mintzatuko naiz—. Abbadiek Chahoren gramatikaren hitzurre luze bat idazten du (“Prolegomènes”, 1-50). Euskal aditzari dagokionez, iritzi filosofiko eta tipologikoekin nahastuta, euskara gainerako hizkuntzetatik bereizten duten ezaugarriak aurkezten ditu. Haien artean aditz-jokoa dago, jakina:

[P]eu d’entre eux [filologoak — R.G.] avaient vu que ce qu’ils appelaient verbes n’était que des noms employés sous diverses formes d’inflexions: que leur auxiliaire *Dut* n’est qu’un cas particulier de la forme conjuguée *Niz, nintzan*, et que tout se réduit, en dernière analyse, à des noms *iz, izan, izaiite*, qui servent à exprimer, sous différentes formes, la seule idée verbale proprement dite, l’expression de convenance entre un nom et son attribut, le verbe être. Plusieurs philosophes, quoique raisonnant d’après des langues où l’idée d’existence est syncopée et confondue avec des modifications actives ou passives, étaient cependant arrivés, par abstraction, à ne reconnaître qu’un verbe. Cette assertion, pleine de sens, se trouve réalisée dans la langue Eskuara. (Abbadie 1836: 2)

Darrigolen proposamenen zantzuak nabari daitezkeen arren, ideia berriak ere aurki ditzakegu Abbadieren aurreko pasartean. Darrigolekin lotzen dira hurrengoak: infinitiboak izen deklinatutzat hartzea; *niz* eta *dut* aditzak aipatzea; aditza kopula delako ikuspegia; euskararen aditzaren analisi logiko-filosofikoa formalki gauzatzen dela baieztatzea. Hala ere, diferentzia nagusia da Abbadiek —euskalaritzan aurreneko aldiz— argi eta garbi adierazten duela euskararen aditz bakarra dagoela. Agian, goiko

---

<sup>19</sup> Antoine d’Abbadie (1810-1897) XIX. mendeko euskal kulturaren sustatzaile nagusia izan zen. Irlandan jaio zen, aita euskalduna eta ama irlandarra zituelarik. 1851etik 1896ra bitartean Euskal Jaiak antolatu eta ordaindu zituen, nahiz eta ondoren ere ospatu ziren, I Mundu Gerra arte. Etiopian bizi izan zen ia hamabi urtez eta bertako hizkuntzei buruzko zenbait lan argitaratu zituen. 1852tik aurrera, Parisko *Académie des Sciences*-eko kide izan zen eta 1892tik aurrera Akademiaren buru. Halaber, 1870etik Parisko *Société Philologique*-eko buru izan zen. Abbadieri eta haren garaiari buruzko xehetasunetarako, ik. Eusko Ikaskuntza & Euskaltzaindia (1998) eta Urkizuk (2002) bildutako bibliografia bikaina.

pasartea Darrigolen eta Chahoren ideien arteko zubitzat jo liteke; Chahok, ikusiko dugunez (§7), aditz bakarraren analisia xehetasun handiagoz garatuko du.<sup>20</sup>

Aurreraxeago, Abbadie saiatzen da hizkuntzen bilakabiderako bide bat proposatzen, lau egoera bereizten dituelarik:

1. Lehenengo egoeran izenak eta euren flexioa besterik ez zegoen; izen konkretuak aurrenik eta abstraktuak, adjektiboak, kasuak eta abar gero. Adibidea Afrikako hizkuntzetan aurkitzen du:

Comme on peut le voir par l'éducation du sourd-muet, tout langage commence par des noms concrets; puis on apprend à généraliser: de là naissent lentement les noms abstraits et qualificatifs, les cas et les terminatives dont on trouve des vestiges dans toutes les langues. Tel est le langage de tant de peuplades nègres; c'est ainsi que des nations peu avancées bégayent leurs idées. (Abbadie 1836: 25)

2. Bigarren egoeran aditza sartzen da, izen-osagaietatik aterea. Abbadiek euskararen adibidea ematen du:

Pour arriver au verbe, au lien de la proposition, il a déjà fallu un grand perfectionnement dans une nation. Les noms abstraits de l'existence présente ou passée combinés avec les noms abstraits des personnes, auront formé les premiers éléments de la conjugaison, c'est-à-dire le présent et le passé. Les formes *niz* (*ni iz*), *nintzan* (*ni izan*), montrent les traces du nom qui s'est fondu avec *iz*, essence ou base du verbe. [...] Dès qu'on a possédé le verbe être, on l'a combiné avec les noms verbaux pour exprimer les noms d'action. Cette marche est naturelle, positive, et a dû se présenter d'abord dans l'enfance de la société. (Abbadie 1836: 25-26)

Formari dagokionez, Darrigolekin dagoen diferentzia hauxe da: Abbadiek aditza osatzen duten bi izenen konbinaketa ikusten du; Darrigolek, aldiz, *ni* + *-z* azterketa egin zuen. Oroit bedi Darrigolek erabat bereizten dituela *niz* aditza eta *izan* infinitiboa. Abbadieren ustez (eta Chahoren ustez ere bai), *iz* eta *izan* euskal aditzaren oinarriak dira. Bestalde, eta filosofiaren lekuari dagokionez, aintzat har bitez Abbadiek darabiltzan “natural” eta “positibo” terminoen erabilera.

---

<sup>20</sup> Oyharçabalek (1998: 445) ohartarazten duenez, paradoxikoa gertatzen da euskal gramatikagintzan aditz bakarraren teoria ageriki sartu dutenak batik bat zubereraren oinarritu diren bi egile izatea, hain zuzen, Abbadie eta Chaho. Izan ere, zubereraren ongi bereizten dira laguntzaile bakoitzari dagozkion aditz jokatuabeak, nahasmendurako aukera itxuraz txikiagoa litzatekeelarik: *izan* iragangaitza (*niz* laguntzaileari dagokiona) eta *ükhen* iragankorra (*dut* laguntzaileari dagokiona).

3. Hirugarren egoerak adizki “sinkopatuen”, laburtuen, agerpena du bereizgarri; hau da, adizki trinkoak, “où le nom verbal s’intercale dans le verbe dédoublé” (Abbadie 1836: 26). Euskarak honelako adizkien adibide zenbait eskaintzen ditu eta, bistan da, Abbadiek uste du, Darrigolek bezala, trinkoetan “aditz-izena” adizkian tartekatzen dela. Hirugarren hau da orobat latinari zegokion egoera.

4. Azkenik, hizkuntza analitikoetarako aldakuntza dugu, frantsesa adibidez. Hizkuntza hauetan deklinabidetik preposizio sistema bat sortzen da eta aditz-jokoan izena apurka-apurka aditzetik “askatzen” da. Halaber, Abbadiek egoera honetan kokatzen du aditz aktiboen sorrera, hau da, objektuarekiko komunztadura duten aditzen sorrera (*ibid.*).

Abbadieren ikuspegian hipotesi glotogoniko hau gizakien pentsamoldearen bilakabidearekin lotzen da: “Les langues des races noires, le basque, le latin et le français, peindront successivement cette transformation dans la manière de rendre la pensée” (*ibid.*). Hogeitabat urte geroago, Alemanian Schleicher-ek hizkuntzen eta gizartearen bilakabideari buruzko teoria arrakastatsu bat proposatuko zuen (ik. Gómez 1989 eta bertan aipatutako bibliografia). Abbadierenarekin erkatuz gero, zenbait antzekotasun ditu, baina baita diferentzia nabarmen batzuk ere. Nagusiki bi dira: Schleicher-ek azaltzen duen bilakabidea nahitaezkoa da, naturala; Abbadieren ikuspegian, ordea, ez dago horrelakorik, bilakabide historiko hutsa da (Oyharçabal 1998: 448). Bigarrenik, Schleicher-ek proposaturiko bilakabidea R. S. Wells-ek (1987: 58) *acmenistic* deitu zituenen gisakoa da —hots, lehenik hobekuntza garai bat dago eta ondoren okertze bat—; aitzitik, Abbadieren lanari ikuspuntu *progressivist* bat antzematen zaio —non egoerarik onena azkena baita—: “Les nations les plus complexes par leur origine, les langues les plus hétérogènes par leurs emprunts semblent être appelées à guider l’avenir de l’humanité. [...] Les langues d’analyse ont pris le dessus dans le monde” (Abbadie 1836: 27-28).

## 7 Chaho (1836)

Aurreko atalean esan bezala, Joseph Augustin Chahok<sup>21</sup> “Grammaire euskarienne” idatzi zuen, Abbadieren “Prolégomènes”en ondotik agertzen dena. Chahok, Lécluse eta Darrigolen moduan, aditzaren banaketa bitarra jasotzen du; alabaina, Abbadiek bezala, *dut niz*-en aldaeratzat hartzen du. Horrela, Chahoren iritziz, euskaran aditz bakarra dago, aditz substantiboa. Eta aditz substantiboaren erroa *iz* da. *Iz* erroa eta *hitz* izena erlazionatzen ditu, eta azken hau zeharka Jainkoarekin lotzen du. Baina Chahok, bestalde, hitz mota bakarra onartzen du, izenak (*noms*); hau da, deklina daitezkeen hitzak. Beraz, aditza ere izenen sailean sartzen du.<sup>22</sup> Horrelaxe hasten da bere gramatikan aditzari eskainitako atala:

Le mot ou *hitz*, créateur, le verbe fécond *IZ*, modifié par la déclinaison et combiné avec les divers pronominaux, forme à lui seul tout l'appareil de la conjugaison euskarienne. (Chaho 1836a: 51)

Analisi honen arabera, *niz* adizkia *ni* izenordaina gehi *iz* hitza besterik ez da, Abbadiek ere adierazi zuenez. Ohartarazi behar da, halere, Chahoren analisisia ez dagoela Darrigolen hartatik guztiz berezirik; azken batean, biek ikusi uste dute *niz* adizkian *-z* deklinabide-marka. Izan ere, Astarloaren ideiak gogora ekartzen dituen azalpen batean, Chahok *iz* erroaren honako interpretazio hau eskaintzen du:

La vocale *i* dont l'émission exige la plus grande contraction de l'organe vocal, et qui se trouve être la note la plus aiguë et la plus vibrante, le son le plus élevé de l'échelle parlée, se combine en euskarien avec la forme déclinative *z*, signifiant appartenance, pour exprimer l'idée de la vie et de l'existence, *iz* est, sois, soit. (Chaho 1836a: 10)

Gramatika kategoria bakarra izaki, aditzak ere deklinatzen dira eta izenak, aldiz, joka daitezke. Ideia honetan oinarritzen da, *iz* erroatik abiatuz eta deklinabide edo eratorpen

---

<sup>21</sup> Chaho (1811-1858) ezagunagoa da, agian, idazle erromantikoa izan zen aldetik; besteak beste, Aitorren alegia idatzi zuen eta bigarren karlista gerratean Euskal Herrian zehar egindako bidaia baten kontakizuna utzi zigun (Chaho 1836b). Autore honi buruz, ik., bereziki, Juaristi (1984-85) eta Urkizu (1992).

<sup>22</sup> Cf. “La langue euskarienne ne reconnaît qu'une seule espèce grammaticale de mots (*hitzak*), qui est celle des noms (*izenak*), régie par un système universellement régulier de déclinaison” (Chaho 1836a: 35), edo beste pasarte hau: “Nous savons déjà que le radical *iz* est un appellatif harmonique que la déclinaison modifie: le système euskarien ne reconnaissent qu'une seule espèce grammaticale de mots, le verbe lui-même se trouve rangé dans la classe de noms; il n'a point d'infinitif” (1836a: 170). Ik. orobat Oyharçabal (1998: 439).

atzizkiak erantsiz, adizki jokatu gabe deitzen ditugunak azaltzeko, hala nola (ik. Chaho 1836a: 170-173):<sup>23</sup>

- a) *iz* + *-an* (“positif”, hots, inesiboa) = *izan*
- b) *izan* + *-en* (genitiboa) = *izanen* (geroaldia eta baldintzazko modua)
- c) *izan* + *-ik* (ablatiboa) = *izanik* (frantsesezko partizipioaren ordaintzat duena)
- d) *izan* + *-a, -aren, -ari, ...* (“défini singulier”) = *izana, izanaren, izanari, ...*
- e) *iz* + *-te* (‘ugaritasuna’ adierazten duen atzizkia) = *izate* (‘existentzia’ adieraziko lukeena) eta, berau deklinatuz gero, *izatean, izaten, izatera, izatetik, izatia, ...*

Chaho joko perifrastiko eta trinkoen arazoaz mintzo da, ohi duen estilo iluminista erabiliz. Hiru joko mota bereizten ditu: “abstraktu eta substantiboak” existentzia eta jabego absolutua adierazten ditu eta, berauek Jainkoaren atributuak direnez, gizakiak ezin du erabili eta egiatan joko hau ez da sekula erabiltzen. Bigarrenak, analitiko edo “elkartua” izendatuak, existentzia osagabe eta iheskorra adierazten du, gizakien ezaugarriak:

Tout nom se décline, toute déclinaison se conjugue dans la belle langue Eskuara. Les divers modes de la conjugaison abstraite et substantive expriment plus particulièrement l’existence et la possession absolues, qui sont les attributs de Dieu; mais dès que le verbe prend une valeur auxiliaire dans la conjugaison composée, les temps se divisent et se modifient de manière à exprimer les situations accidentelles, qui sont le partage de toute existence fractionnelle et passagère, comme l’homme. (Chaho 1836a: 171)

Bigarren joko mota honetan aditz bakarrak laguntzaile gisa jokatzen du, beste hitz batzuekin elkartzen delarik (infinitibotzat hartzen ez dituen hitzak, jakina; ik. 22. oh.): “*Niz* accompagne alors les modifications neutres ou passives. *Dut* caractérise toutes les conjugaisons actives et régissantes” (1836a: 156). Azkenik, joko sintetiko edo “sinkopatu” aipatzen du eta Darrigolek bezalaxe aztertzen: “La fusion du nom avec le verbe forme la conjugaison syncopée” (1836a: 180-181).

---

<sup>23</sup> Gainera, edozein hitz, deklinatua zein ez, joka daiteke *-tu* atzizkia atxikiz gero; cf. “Le *tu* leur imprime le sens actif que leur simple appellation ne saurait comporter” (Chaho 1836a: 176) eta “Non-seulement tous les mots euskariens sans exception prennent valeur active et se conjuguent avec un brillant cortège de relations déclinales et de modifications secondaires, mais encore CHACUNE DE CES MODIFICATIONS, DE CES RELATIONS MARQUÉES PAR UNE TERMINATIVE, SE CONJUGUE À SON TOUR” (1836a: 178). Chahok adibide batzuk eskaintzen ditu: *hebenkotu niz / dut, hebenkoarentu niz / dut*, etab. Honen antzeko ideia bat aurkitu genuen Astarloaren lanean (ik. 6. oh.).

## 8 Inchauspe (1858)

Inchauspe kalonje zuberotarra<sup>24</sup> da, ezbairik gabe, euskarak aditz bakarra duela sutzukien defendatu zuen euskalaria. Aski da bere *Le verbe basque* liburua (Baiona/Paris, 1858) nola hasten duen irakurtzea, Bonaparte Printzeari egindako eskaintzaren ondoren honelaxe esaten baitu: “La langue basque n’a qu’un verbe” (Inchauspe 1858: 1). Izan ere, liburuaren gainerako orrialdeetan baieztapen hori frogatzen ahalegintzen da. Halaber, hainbat eta hainbat taula eta paradigmaren bitartez, euskal aditzaren aberastasuna ere erakutsi nahi du, hala modu, nola denbora, pertsona eta gainerakoei dagokienez.

Inchauspek bi boz edo ahotsetan banatzen du aditz bakarra, ahots iragangaitza (*da*) eta ahots iragankorra (*du*),<sup>25</sup> eta garbi utzi nahi du ez direla bi aditz desberdin. Berau frogatze aldera, ohartarazten du euskaraz aditz iragankorrek (edo aktiboek) iragangaitzari dagozkion laguntzaileak hartzen dituztela eraikuntza bihurkari eta sasi-pasiboak osatzeko:

Ces deux voix sont le complément l’une de l’autre et ne doivent être considérées que comme composant un seul verbe. En effet, la même action a besoin des deux voix, de même qu’elle a besoin des divers modes, pour exprimer ses divers rapports [...]. Pour rendre *il l’a offert*, on dit *eskéntu DU* avec la voix transitive; pour exprimer *il s’est offert*, *eskéntu DA* avec la voix intransitive; *il le commençait* se dit *hásten zían*; *il commençait à*, *hásten ZEN*; *il l’aura perdu*, *gáldu DUKE*; *il se sera perdu*, *gáldu DATE*, etc. (Inchauspe 1858: 1)<sup>26</sup>

Aditzaren definiziorako, bidenabar ematen duena, irizpide sintaktikoa baliatzen du nagusiki, Port-Royaleko gramatikan bezalatsu, eta formala bigarrenik:

---

<sup>24</sup> Emmanuel Théodore Inchauspe (1816-1902) Bonaparte Printzearen laguntzaile izan zen eta, haren enkarguz, zenbait lan erlijioso itzuli zituen zubererara. Beste lan erlijioso batzuen egilea izan zen eta 1864an Axularren *Geroko Geroren* hirugarren argitalpen zuzendu bat atera zuen (cf. Villasante 1979).

<sup>25</sup> Aktibo-pasiboaren orde, ahotsei dagokiela “iragankor-iragangaitz” terminoak erabiltzea ez da inondik ere Inchausperen asmakizuna, ezta berak baino lehenago terminoak euskarari aplikatu zizkion Zabalarena ere (1848). Zabalaren hitzak irakurritz gero —“A esta ultima [pasiboa —R.G.] llaman también neutra, media é intransitiva: y á la activa transitiva” (Zabala 1848: 1)—, argi dago terminologi nahasketa artean hedatuta zegoela (cf. Gómez Asencio 1985 eta batez ere Iglesias 1991).

<sup>26</sup> Cf., orobat, “Ces noms, que nous appelons transitifs, se conjuguent avec les formes transitives et intransitives. Lorsqu’ils se conjuguent avec les formes transitives, leur action se porte sur un objet étranger au sujet, et alors ils rendent le sens des verbes appelés actifs en français. Lorsqu’ils se conjuguent avec les formes intransitives, l’action qu’ils expriment retombe sur le sujet, et alors ils rendent le sens des verbes appelés en français *réfléchis* et *passifs*” (Inchauspe 1858: 21).

Le rôle du verbe en basque est de lier les idées exprimées par les noms et d'en indiquer les divers rapports, et ces rapports s'exprimant par les formes, les modes et les voix, l'ensemble de ces formes, de ces modes et de ces voix constitue le verbe complet (1858: 1-2)

Esan gabe doa, pasartearen hasieran aipatu izenen artean Inchauspek *noms verbaux* izendatzen dituenak daude —adizki jokaturgabeak alegia— eta aurreko autoreen moduan ez du uste aditzak direnik: “Nous ne comptons pas l'*infinitif* parmi les modes du verbe; les terminatifs que, par analogie, on a cru devoir rapporter à ce mode, appartiennent au nom verbal” (1858: 3).

Nahiz eta aditzaren definizioan Inchauspek ez zuen baieztapenez deus ere esaten, testuan aurrerago agertzen da, aditz-izenen eta benetako aditzen arteko aldea zehaztu behar duelarik:

On ne conçoit pas de verbes sans affirmation, sans indication de mode, de temps et de personne; or ces termes [aditz-izenak — R.G.] exprimant simplement une idée, une manière d'être ou d'agir, sans aucune affirmation, sans indiquer aucun rapport soit au temps, soit aux personnes, sont dépourvus des propriétés essentielles du verbe, tandis qu'ils ont tous les caractères des substantifs et des adjectifs: ils se déclinent au défini, à l'indéfini, au singulier et au pluriel, [...] (1858: 7)<sup>27</sup>

Bestalde, Inchausperen iritziz, izen eta adjektibo horiei “aditz-izenak” dei diezaiekegu, aditzarekin lotzeko aproposak direlako eta ekintza edo egoera bat adierazten dutelako. Delako ekintza objektu bati helarazten badiote, boz iragankorarekin (*dut*) lotuko dira. Aldiz, ekintza subjektuaren beraren gainean islatzen bada —pasibo eta bihurkarietan bezala— edo inork jasotzen ez badu —neutroetan—, aditz-izenak boz iragangaitzarekin (*niz*) lotuko dira.

Inchauspek eskaintzen duen aditz trinkoen —edo, berak deitu bezala, *formes contractées* direlakoan— analisia Darrigol eta Chahoren lanetan ikusi berri ditugunak

---

<sup>27</sup> Baieztapen honen ostean adizki jokaturgabe guztien analisi xehe bat dator eta, Darrigolek bezala, izen edo adjektibo deklinatutzat hartzen ditu Inchauspek. Aski da hurrengo pasartea irakurtzea bi egileon proposamenen arteko antzekotasunez jabetzeko, batik bat euskarazko adibideak frantsesera nola itzultzen dituzten aintzat hartuz gero (cf. 11. oh.): “Les noms verbaux indiquent les diverses manières d'être et d'agir; le verbe unique exprime les relations de ces manières d'être et d'agir avec les personnes et les temps. Ainsi, dans *ebiltzen niz, je suis en marche, je marche*, — *ebiltzen, en marche*, exprime le genre d'action qui se fait; *niz, je suis*, exprime le sujet de cette action et le temps présent” (Inchauspe 1858: 12).

bezalakoxea da (Inchauspe 1858: 445-446) eta, hortaz, ez du merezi hemen xehetasun gehiago ematea.<sup>28</sup>

Liburua amaitzeko, Inchauspek apologi kutsua duen solasa dakar. Bertan Jainkoari —hots, Aditzari, “Verbe Eternel” deitzen baitio— zuzentzen zaio eta iradokitzen du euskal aditzaren perfekzioak hizkuntza Jainkoaren dohaina dela frogatzen duela, orobat, euskaldunek euren hizkuntzan gorde ahal izan dituztela lehen hizkuntzaren ezaugarri batzuk—gainerako hizkuntzek galdu dituztenak—, egiazko fedeari eusten jakiteagatik:

Au milieu de cette universelle dégénérescence du langage, l’esprit s’arrête avec complaisance devant ces magnifiques restes de grandeur et de perfection que nous offre la langue Basque et qui nous donnent une idée de ce que pouvait être la langue de l’homme avant sa chute [...] [T]ous ces caractères ne sont-ils pas autant de traits divins qui nous révèlent encore, ô VERBE incréé, votre manifestation dans la parole humaine? — Est-ce à sa fidélité au culte du vrai Dieu que le peuple Basque doit de les avoir mieux conservés que tous les autres peuples du monde? Nous aimons à le croire. (1858: 508)

## 9 Bonaparte (1869, 1876, 1877)

Bonaparte Printzeak,<sup>29</sup> han-hemenka utzi zizkigun gramatika-lanetan, euskal aditzaren sailkapen desberdinak proposatu zituen. Sakabanatze honek maizegi haren aditz-teoriaren ikuspegi orokor bat erdiestea zailtzen du. Bonaparte, oso *sui generis* bada ere, aditz bakarraren teoriaren aldekoa da. Ez du sekula baieztatzen benetako aditz bakarra dagoenik, baina aditz formen arteko hierarkia argi bat ezartzen du, adizki zenbait beste batzuk baino huts edo garbiagoak direla adieraziz eta, horretarako, arazo formal eta

---

<sup>28</sup> Nolanahi ere den, ez dut aipatzeke utzi nahi *diot*, *dioát*, *diózu*... adizkiei buruz proposatzen duena. Gainerako aditz trinkoetan ez bezala (*noa* = *joan* + *niz*, *darámat* = *eráman* + *dut*,...), forma hauen baitan *érran* partizipioa ikusi ezin baitu, latinetik edo erromantzetik letozkeela adierazten du, *dicere*-tik alegia (cf. gazt. *digo*): “Les formes *diot*, *dioát*, *dioe*, *diok*, *dion*, *diózu*, *diozie*: je dis, ils disent, tu dis, vous dites, sont empruntées au latin ou à l’espagnol; elles peuvent parfaitement être remplacées par la conjugaison régulière de *érran*, mais elles n’en sont pas composées comme les autres formes régulières” (Inchauspe 1858: 446).

<sup>29</sup> Aski ezaguna denez, Louis-Lucien Bonapartek (1813-1891), Napoleon I.aren ilobak, euskalkien lehen sailkapen zehatza burutu zuen. Euskalki guztietako laguntzaileez inguratu baitzen, testu erlijiosoen hainbat itzulpen biltzea lortu zuen. Haietariko batzuk bakarrik moldiztegitatu zituen (ik. Arana Martija 1989), 1870ean Frantziako III. Inperioa desagertzearekin diru baliabideak galdu zituelako. Euskal aditzari buruzko argudio teorikoak zenbait artikulutan (ik., batez ere, Bonaparte 1876, 1877, 1884) eta *Le verbe basque en tableaux* (1869) bere lan nagusian sakabanatuta daude; oraingoz ez dugu Printzearen aditz teoriari buruzko monografia sakonik, baina hurbilketa aski xehe baterako ik. Suárez (2000). Bonaparteren bizitzaz eta gainerako lanez, ik. Gómez (1989) eta bertan aipatutako bibliografia.



apologetikoak —are metafisikoak ere— nahasten dituen argudio sorta bat erabiliz.<sup>30</sup> Beste alde batetik, adizki iragankorrek beti objektua adierazten duten Darrigolen ideia bere aditz teoriaren erdigunean kokatzen du Bonapartek. Jarraian, bi gai hauek ahal den modurik laburrenean azaltzen saiatuko naiz.

Adizki jokatuaren sailkapenaren barnean Bonapartek izen adiztuen (*noms verbisés*) eta aditz-bukaera hutsten (*terminatifs (verbaux) purs*) artean bereizten du. Lehenbizikoek izen-etorkiko erroa dute; bigarrenak, aldiz, ez dute inolako errorik agertzen:

a. Aurreneko sailean euskal aditz eta laguntzaile gehienak sartzen dira: adizki trinkoak, “*izan* iragangaitza” (*naiz, da*), eta *iraun*<sup>31</sup> (*diro, ziroen, diroke*), *adi* (*dadin, nadila*) eta *ki*<sup>32</sup> (*dakion, zekiola*) laguntzaileak; Bonaparteren ustez, “*izan* iragankorra” deitua (*dezadan, dezake*)<sup>33</sup> eta *egin* (*dagidan, dagizula*) bi sailen arteko zubia liriateke, ez baitute indikatiboko adizkirik (Bonaparte 1869: 159).<sup>34</sup> Printzeak *izan* iragangaitzaren eta *izan* iragankorraren arteko bereizketan Inchauspek proposatu bi ahotsak frogatzeko oso argudio egokia aurkitzen du:

2° que le nom verbal *izan*, dans la majorité des dialectes,<sup>35</sup> a le sens de *être* et celui de *avoir*; on sera forcé de conclure, que dans les noms verbisés les plus importants et les plus usuels du basque, le radical du transitif est le même que celui de l'intransitif, et que ce sont bien deux voix et non pas deux verbes que cette langue nous présente en *nintzan* ‘j’étais’ et en *nezan* ‘que je l’eusse’ (*je l’avois*, en vieux labourdin). (Bonaparte 1869: xxvii)<sup>36</sup>

---

<sup>30</sup> Euskal aditzari buruz idatzi zuen liburuaren azalean (Bonaparte 1869) honako pasarte bibliko hau sartzen du, bere asmoen aitormentzat har daitekeena: “In principio erat Verbum.”

<sup>31</sup> Ekialdeko adizki laguntzaile hauen erroa *iraun* dela uste du Bonapartek (1876), van Eysek (1874, 1875) proposatu zuen *eroan*-en aurka (ik. orobat Gómez 2002b).

<sup>32</sup> Adizkion erroa *egon* edo *egoki* (Bonaparte 1877: 42) *izan* litezke, baina *ki* bera ere badu izentzat (1877: 44).

<sup>33</sup> Jakina, gaur egun azken forma hauek *\*ezan* aditz berreraikiari dagozkiola pentsatzen da. *\*Ezan* aditz laguntzailea, baita *\*edin* ere, van Eysek berreraiki zituen bere gramatika konparatzailean (1879: 196 eta hh.). Laurogeietako hamarkadaren bukaeran aditz hauek rol berezia jokatu zuten Berlingo *Euskara* aldizkarian Bonaparte, van Eys eta Vinsonek Etxepare eta Leizarragaren hizkeren inguruan *izan* zituzten eztabaidetan (lan hauen aipamenerako, ik. Gómez 1989).

<sup>34</sup> Cf. “Les deux noms verbaux *izan* et *egin* ne peuvent donc être assimilés aux autres que morphologiquement. Ils forment classe à part, quant au sens, et servent, pour ainsi dire, de transition entre les terminatifs verbaux purs et les noms verbaux ordinaires” (Bonaparte 1869: 159). Alta bada Bonapartek ez du inon argiegi azaltzen zertan datzan “trantsizio” izate hori.

<sup>35</sup> Oroit bedi 20. oin-oharrean esandakoa.

<sup>36</sup> Cf. orobat Bonaparte (1876: 8): “Ce nom verbal [*izan* — R.G.] qui signifie en même temps ‘eu’ et ‘été’ dans cinq des huit dialectes basques, de même que *ill* ou *hil* signifie ‘mort’ et ‘tue’, est un argument très-favorable aux deux voix dans le verbe”.

b. Aditz-bukaera hutsen bereiztea, bestalde, Bonaparteren aditz-teoriaren funtsezko puntua da. Errorik gabeko adizkiak dira; izan ere, adizkiok izenordainez (subjektua, objektu zuzena, zeharkako objektua, alokutiboak<sup>37</sup>), modu- eta denbora-hizkiez eta “letra eufonikoez” osaturik daude.<sup>38</sup> Eta osagai hauen guztien elkartzea da, hain zuzen ere, *aditza* sorrarazten duena eta, horrela, aditzari baieztapena adierazteko gaitasuna agerrarazten diona:

Les éléments constitutifs des terminatifs verbaux consistent essentiellement en pronoms soit à l'état de sujet, soit à l'état de régime direct ou indirect, soit à celui d'allocution. Ils se trouvent tantôt au singulier, tantôt au pluriel. Des lettres pronominales, tenant lieu de pronom, des syllabes caractéristiques de mode ou de futur, des lettres euphoniques pour faciliter l'union intime de tous ces éléments, complètent la série. Au moment de l'union, le Verbe avec sa qualité essentielle, l'affirmation, se manifeste. (Bonaparte 1869: 159)

Garbitasun hau, aditzik gabeko aditz hau, oso deigarri gertatu zitzaion Bonaparteri, eta horrexegatik eskaini zion Printzeak leku berezia bere ohar teoriko urrietan, kutsu metafisikorik falta ez bazaio ere:

Le Verbe pur est pour nous quelque chose d'insaisissable, qui se manifeste toutefois au milieu d'éléments matériels fort saisissables et qui, loin d'en être le produit, les domine de toute sa puissance en les vivifiant. Le Verbe c'est la Vie. (*ibid.*)

Alderdi formalari bagagozkio, Bonapartek proposatzen du *dut* bezalako aditz-bukaera hutsetan, betiere iragankorrek izaki, hirugarren pertsonako objektu zuzena adierazten duen erakusle bat aurkitzen dugula:<sup>39</sup>

De toutes les permutations que l'on observe dans le verbe basque, celles des syllabes *au*, *dau* sont sans contredit les plus nombreuses et les plus importantes. Ce sont bien ces syllabes en effet, ou leurs permutations (et c'est en cela surtout que consiste notre théorie du Verbe basque) celles qui représentent le régime direct singulier de troisième personne, *au* n'étant lui-même que le démonstratif français *ceci*. (Bonaparte 1869: xi)

Hau da, Bonaparteren iritziz,  $dut = dau + t$ ,  $nau = ni + (h)au$ , etab. Beste alde batetik, *dau* erakuslearen aldaera bat baino ez da (*au*, *hau*, *haur*, *gau*, *kau* eta *kaur* gainerako

---

<sup>37</sup> Diodan, bidenabar, “alokutibo” terminoa Bonapartek berak sartu zuela euskalaritzan, euskarari buruzko bere lehenbiziko lanean (Bonaparte 1862: 19).

<sup>38</sup> “Letra” eta silaba hauen guztien zerrenda osoa da, euskalki bakoitzean jasaten dituzten aldakuntzekin batera, Bonapartek bere liburuaren taulen aurretik eskaintzen dituen “Observations” direlako gaia (1869: ix-xxxii). Nabarmendu nahi nuke Bonapartek ez diela batere begirunerik erakusten hots aldaketa erregularrei — adiera hertsian, garai hartan ezin baita oraingoz “lege fonetikoez” mintzatu—; aurreraxeago Printzearen jokamolde honen adibide bat eskainiko dut.

<sup>39</sup> Berebat zeharkako objektuari dagokionez, non *-o-* < *oni* proposatzen baitu (Bonaparte 1869: 159).

aldaerekin batera)<sup>40</sup> eta aditz-bukaeretan bilakaera franko izan ditzake euskalki, azpieuskalki eta hizkeren arabera:

Nous disons donc que la syllabe *au*, telle qu'elle existe dans son intégrité primitive en *dau* 'il l'a' du bisciaïen, peut se transformer en *a, e, i, o, u ü, ai, ei, eu, aa, ao, ie, ii, io, iu, iü, oo, üi, üü*. (Bonaparte 1869: xi)

Ondoren, Bonapartek bilakaera guztien adibideak ematen ditu, bakoitzaren geografi jatorria ere zehazten duelarik.

Hortaz, Chahoren analisiaren oso antzekoa dugu Printzearena, nahiz eta teoria konplexuago batean txertaturik egon. Azken batean, bien helburua adizki iragankorretan objektuak nahitaez agertu behar izatea formalki azaltzea da. Eta, Bonaparteren kasuan, aditz-bukaera hutsak deiturikoez errorik ez dutela aldarrikatzea. Azken ideia honekin Vinson edo Zabala (1848) bezalako autoreen kontra agertzen zen; lehenak (Vinson 1867) *-u-* bokala *uk(h)an* aditzaren erroa zela zeritzon eta bigarrenak (Zabala 1848), aldiz, *eduki* aditzarena.<sup>41</sup>

Adizki iragankorretako erakuslearen beste adibide bat Bonapartek “*izan* iragankorra” deitzen duen aditzean (= \**ezan*) kausitzen dugu:

Le changement de l'*i* initial de *izan* en *e* dans *dezan*, est dû au démonstratif qui s'amalgame, pour ainsi dire, avec l'adjectif verbal. (Bonaparte 1876: 8)

Alegia, *dezan* “izen adiztuan” *dau* erakuslea, *iz(an)* “aditz-izena” eta subjuntiboaren ezaugarria den *-n* kausitzen ditugu. Puntu honetan ere hurbiltzen zaio Bonaparte Chahori, baita *iz* erroa (*h*)*itz* izenarekin parekatzen duelarik (Bonaparte 1877: 42); oroit bedi latinean *verbum* hitzak duen esanahi bikoitzaz.

Bonaparteren aditz teoria zail da kokatzen bere garaiko ingurunean, hizkuntzalaritzan metodo historikoa garatzen ari zen garai bati baitagokio. Badakigu Bonapartek ederki ezagutzen zituela hizkuntzalaritzaren azken aurrerapenak —baina, jakina, ezagutzeak ez du esan nahi ados egotea—. Zernahi gisaz, ezin dugu inola lotu gramatikari filosofoen tradizioarekin ere (Darrigol, Chaho eta Inchauspe bezala). Aintzat hartzeko faktoreak dira, orobat, euskarak Bonapartegan sor zezakeen lilura eta Printzearen kristau fede

---

<sup>40</sup> Eta *dau*, bestalde, *gau*-ren aldaera litzateke, Printzearen teoriaren bertsioetariko batean behinik behin (Bonaparte 1877: 37).

<sup>41</sup> Esan gabe doa, gaur egun *dut* paradigmako adizkiak \**edun* aditz berreraikiari atxiki nahiago da, *uk(h)an* eta *eduki* haren partizipio eratorriak lirakeelarik.

sakona, hala nola Inchauspereen eragin nabarmena eta, oro har, gramatikari euskaldunen teoriakiko agertzen zuen hobespena, ziurrenik teoria osoa azaltzeko adinako arrazoiak ez izanagatik.

Laburbilduz, bistan da Bonapartek, euskaraz aditz bakarra dagoenik sekula esan gabe ere, aditz bakarraren teoriaren zenbait alderdi jaso zituela, hala nola aditzak ‘baieztapena’ edo ‘existentzia’ adierak<sup>42</sup> izatea, edo adizkiak funtsean izen-etorkiko osagaiez eratzea, ondorioz benetako aditz-errorik ez dagoela iradoki zuelarik.

## 10 Azkue (1891)

XIX. mendearen hondarrean, gramatika logiko-filosofikoen berpizte bat azaltzen zaigu, baina oraingoan Hego Euskal Herrian gertatzen da. Haren pizgarria, segurki, 1883an Astarloaren *Discursos filosóficos* argitaratzea izan zen, mende hasieran idatziak izan arren ordu arte argitaragabe baitziren. Joera honi atxikitzen zaizkion egileek euskararen ustezko lehengo egoera berreraiki nahi dute, bai eta erabilarazi ere, *a priori* ezarritako espekulazio logikazaleetan oinarrituz (Alberdi 1989). Berpizte honen lehen emaitza *Euskal-Izkindea* izan zen, Azkuek<sup>43</sup> Bizkaiko Diputazioaren Euskarako Katedrarako prestatu zuen gramatika-liburua hain zuzen ere (Azkue 1891). *Izkindearen* iturri nagusia, Lakak (1986: 712) nabarmendu zuenez, Astarloaren *Diskurtso filosofikoak* dira, hain zuzen ere, nahiz eta euskal aditzaren azterketari dagokionez Azkue sarritan apaiz durangarraren proposamenetatik urruntzen den.

---

<sup>42</sup> Bigarren esanahia, espero zitekeenez, *izan* iragangaitzean aurkitzen du Printzeak: “Quant aux terminatifs intransitifs à base de *izan*, nous pensons que l'adjectif verbal auquel ils s'unissent représente un simple attribut, tandis qu'ils se trouveraient contenir *izan* dans le sens d'existence” (Bonaparte 1876: 8).

<sup>43</sup> Resurrección M<sup>a</sup> Azkue (1864-1951) XX. mendeko euskal hizkuntza eta kulturaren ikertzaile handienetakoa izan zen. Haren lan eremu nagusiak hizkuntzalaritza, literatura eta folklorea izan ziren. Beste hainbat lanen artean, euskara batua sortu arte hizkuntzalarien zein idazleen ezinbesteko tresna izan zen hiztegia ondu zuen (Azkue 1905-1906), baita euskal morfologiari buruzko lan ospetsu bat ere (Azkue 1925). Halaber, 1918an Euskaltzaindiaren sortzaileetariko bat izan zen eta, hil arte, euskaltzainburu. Azkueri buruz, besteak beste, ik. Arana Martija (1983) eta Mitxelena, Caro Baroja & Tovar (1966).

Euskal “aditz miragarri ta Iaungoikozko au” (Azkue 1891: 145) behar bezala argitzeko zailtasun han-hemen errepikatuak aipatu ondoren, Azkuek aditzaren honako definizio hau eskaintzen, eta azaltzen, du:<sup>44</sup>

«Gauzen izamen langotuan edo langogean itz agerria» daila aditza uste daut.

Gizan izateak baino ezdagoz. Langotasun ta bezte ganerantzeko guztiak izateetan bizi daiz. Izate guztiak *izakizuna* ta *izamena* daukez: *izakizuna*’ izenak agertu daroe, *izamena*’ aditzak. *Izamena* (bardin *izakizuna* bere) langotua nai langotu bagea izan leike: gertaldi biotan *aditza* esan oi dakio *izamena* agertuten dauen itzari, estu estuan aditz egiazko bat baino ezegonarren.

Creo que verbo es «palabra expresiva de la existencia calificada ó no calificada de las cosas.»

En la naturaleza no hay más que seres. Las cualidades y todos los demás accidentes en los seres viven. Todos los seres tienen *esencia* y *existencia*: la *esencia* suelen manifestar los nombres, la *existencia* los verbos. La *existencia* (como también la *esencia*) puede ser calificada ó bien no calificada: en ambos casos se llama verbo á la palabra que suele expresar la existencia, aunque en rigor no haya sino un solo verbo.

(Azkue 1891: 146)

Jakina, Azkuek aipatzen duen “aditz egiazko” hori *izan* aditza da, “izamen langogea edo utsa” (*ibid.*) adierazten duena. Azkuek honela jarraitzen du: “bezte aditz guztiak izamen lagotua agertuten dauetz, edo obeto esateko, izamenan langotasunak / todos los otros verbos suelen manifestar existencias calificadas, ó para decirlo mejor, cualidades de la existencia” (*ibid.*). Hauxe baita Azkuek euskal aditzean ezarritako lehen bereizkuntza: “langogea=no calificado (sustantivo)”, *izan* alegia, eta “langotua —calificados”, hau da, gainerakoak. Bistan da, Azkueren sailkapena aditz substantiboaren eta aditz adjektiboaren arteko bereizkuntza ezaguna baino ez dugu (cf. §3). *Izan* aditz substantiboari dagokionez, bestalde:

Egintza bi daukaz aditz onek: batzuetan bakarrik oituten dai, bezte batzuetan aditz langotua mugatu ta irabiateko balio izaten dau. Bakarrik oituten daianean’ *izamen utsa* agertu daroa, erderaz *ser*. Bezte aditzen laguntzailatzat oituez gero’ erderazko

Este verbo tiene dos oficios: á veces se emplea sólo, otras veces suele servir para limitar y conjugar los verbos calificados. Cuando se emplea sólo suele significar *existencia pura*, en otra lengua *ser*. Empléandose por auxiliar de los otros verbos, suele tener la

---

<sup>44</sup> *Euskal Izkindea* bi zutabetan antolatuta dago: ezkerrekoan, Azkuek berak proposatutako hizkuntza eredu erabiliz idatzitako testua dugu (Dodgsonen *azcuence* izendatu zuena, alegia, eta ia ulertezina dena); aldameneko zutabean gatzelaniazko bertsioa dugu, maiz euskararen sintaxiari lotuegi badago ere.

*haber* ta *haberse*-n agerkizuna euki daroa: *haber*’ langotasun biralkoiakaz batuten dainean, eta langotasun euskoiakaz *haberse*.

significación de *haber* y *haberse*: *haber* cuando se junta con cualidades transitivas, y *haberse* con cualidades intransitivas.

(Azkue 1891: 148)

Hortaz, Azkueren ustetan laguntzaile guztiak, hala iragangaitzak nola iragankorrek, *izan* aditzari dagozkio,<sup>45</sup> zeinahi modu edo denbora dutelarik ere (Chaho eta Inchauspereen ildo beretik, hain zuzen). Izan ere, aditz “langotu” guztiek, *izanen* mende baitira, ‘existentzia’ adierazten dute. Bestela esanda, Azkuek ezaugarri horri egozten dio euskal aditz-jokoa batez ere analitikoa izatea:

Augaitik’ aurrerantzean ikusiko dainez, *izan* aditza edo aditz langogea bear daue aditz guztiak irabiateko. Euskaraak daukan lege au iakituriz beteriko legea dai, gizako legea dailako; gizako legeak barriz euren Egile lakintsuari iarraitu daroakioe. Gizako legea dai’ langotasunak eurenez ezin bizi al izatea, izateetan bizitokia eukitea: aditz langotuak edo izamenen langotasunak *izatean* (*izan* aditzean) irabia ta bizi bear daue.

Por esto, como se verá en adelante, todos los verbos necesitan para ser conjugados el verbo *izan* ó el verbo sustantivo. Esta ley que tiene el euskara es ley llena de sabiduría, porque es ley de naturaleza; y las leyes de la naturaleza siguen á su Sabio Criador. Es ley de la naturaleza el que las cualidades no puedan vivir en sí mismas y que tengan su vivienda en los seres: los verbos calificados ó las cualidades de la existencia deben conjugarse y vivir en el *ser* (en el verbo *izan*).

(Azkue 1891: 147)

Aurreko pasartean nabari daitekeenez, Azkuek, elizgizona izaki, ez du aukerarik galtzen erlijioarekin lotutako argudio apologetikoak behin eta berriz erabiltzeko. Honela bada, laguntzaile guztiak *izanen* sartzen dituelarik, Azkuek euskal aditz-jokoaren aniztasuna eta aberastasuna erakutsi ahal ditu, modu erraz bat baliatuz eta, aldi berean, euskararen jainkozko izaera aintzat hartuz (Laka 1986: 729). Hala ere, gramatika-liburuaren beste toki batean, Azkuek onartzen du laguntzaile bat baino gehiago daudela. Zehazkiago, Astarloaren (1883: 481-484) ideia bati jarraituz, Azkuek proposatzen du edozein aditz trinkok balio duela laguntzailearen eginkizuna betetzeko.

---

<sup>45</sup> Itzulpenak gorabehera; izan ere, gaztelaniazko ordainetarako *haber(se)* hautatzen du Azkuek, ziurrenik horixe delako gaztelaniazko laguntzaile bakarra ere.

Beste alde batetik, eta espero zitekeenez, Azkuek euskararen aditz irregularrak izatea ukatzen du, “[g]ure izkeraak ez dauka[lako] araugetasunik” (1891:146). Aditz trinkoen jatorriaz den bezainbatean, Azkuek berriro ere baliatzen ditu gramatikaz kanpoko argudioak, berak “irabaiagarri” deitzen dituen adizkiok euskararen badirela justifikatzeko<sup>46</sup> eta *izan* aditz bakarrarekin erlazionatzeko:

Ene ustez’ *aditz irabiagarri guztiak*’ IZAN *aditzetik eratorri daiz*. Zelan eratorri daizan ezin bururatu badaut bere’ *zergaitik izan-etik* eratorri daizan badakitala uste daut.

Ezin argitaratu leikezan gauza asko dagoz’ ukatu bere ezin leikezanak. Aufse iazoten dai *eskutapenakaz* bere: euren *izamena* ezaun ezauna daugu, euren *izakizuna* andien andienaz ta argitasunan argitasunaz ezin beragandu dau gizonan adin t̄sat̄sarrak. Euskal-aditza dain miraritsua ezin ulertu leike: bere mirariak eta eskutapenak gizakoak daiz baina andiak; eurak zakonduten dabilenak’ (gizako bezte mirari giztien astertzaileak legez) gizonan adina ta almenak baino adin argiagoa ta almen edatsuagoak daukazala euren egileak’ nai-ta-nai-ez autortu bear dau.

A mi juicio *todos los verbos conjugables se han derivado del verbo IZAN*. Aunque no puedo discurrir *cómo* se han derivado, creo que *sé por qué* se han derivado de *izan*.

Hay muchas cosas que no se pueden demostrar y que tampoco se pueden negar. Esto mismo sucede también con los *misterios*: su *existencia* nos es muy conocida, su *esencia* por su extrema magnitud y claridad no la puede hacer suya el menguado entendimiento del hombre. No puede comprenderse cuan misterioso sea el verbo eúskaro: sus maravillas y misterios son naturales, pero grandes; el que se ejercita en profundizarlos tiene que confesar por necesidad (del mismo modo que el escudriñador de todas las demás maravillas de la naturaleza) que su creador tiene entendimiento más claro y potencias más extensas que el entendimiento y las potencias del hombre.

(Azkue 1891: 157-158)

Aditz trinkoen izaerari dagokionez, Azkuek aditz-denboren teoria konplexu bat<sup>47</sup> garatzen du, Jaime Balmesen *Filosofía fundamental* lanean oinarriturik, aditz trinkoen beharra agerrarazteko. Azkueren eskema labur-labur azalduz —xehetasunetarako ik. 1891: 161-168—, adizki *irabiagarriak* beharrezkoak dira “aidako usteak / ideas de

---

<sup>46</sup> Beste toki batean euren zerrenda eskaintzen du (“Zenbat daizen aditz eurenez irabiagarriak”, 1891: 156).

<sup>47</sup> *Izkindean* proposatzen den aditz-denboren sailkapenari buruz, ik. Laka (1986) eta bereziki Gutierrez (1999).

momento”<sup>48</sup> direlakoak adierazteko, hala “urrekoak / próximas” (adib. *dakart*) nola “urrunekoak / remotas” (adib. *nekarren*). Aitzitik, *ekarten daut* edo *ekarten neuan* bezalakoetan “uste oituak / ideas habituales” agertzen dira.<sup>49</sup> Beraz, ikusi ditugun beste autore batzuk ez bezala, Azkuek argi eta garbi bereizten ditu adizki trinkoak eta esanahi bertsuko adizki perifrastikoak.<sup>50</sup>

## 11 Arana-Goiri [ca. 1888]

Aditz bakarraren teorian oin hartu zuten euskal autoreen gainbegiratu hau amaitzeko, aurkez dezadan Arana-Goiriri buruzko ohar txo bat.<sup>51</sup> Gaztaroko lan batean (Alday haren argitaratzailearen arabera, 1888 ingurukoa litzateke), bizkaierazko aditzaren sailkapenaz ari zelarik, Arana-Goirik hiru sailkapen mota bereizi zituen: “1.<sup>a</sup> *clasificación morfológica*; 2.<sup>a</sup> *clasificación morfológico-significativa*. 3.<sup>a</sup> *clasificación significativa*” (Arana-Goiri 1991: 40). Hirugarren sailkapenari eskainitako atalean, *ixan* aditzaren bi esanahi bereizi zituen:

El verbo *ixan* (ser) tiene dos distintas significaciones: una la de *existir*, y por ella se llama *sustantivo*; otra, la de aplicar, a un sujeto, un predicado o atributo, y por ella se llama *copulativo*. *Jaungoikua da* (Dios es o existe) es ejemplo de lo primero; *Jaungoikua da deun* (Dios es santo) es ejemplo de lo segundo. (Arana-Goiri 1991: 63)

---

<sup>48</sup> Aditz-denborari eskainitako kapituluan zehar “ideas momentáneas” eta “ideas presentes” terminoak ere erabiltzen ditu gaztelaniazko zutabeen; euskarazkoan, “aidako uste(ak)” dagokie beti.

<sup>49</sup> Cf. “Ezdaiz aidako usteak eta *uste oituak* nastu bear: aidakoak gitsi daiz (475 garren esaldian ta urrengoetan erakutsi itzazan), oituak edozein aditzetan egon leikez. / No deben confundirse las ideas *presentes* y las ideas *habituales*: las presentes son pocas (se manifestaron en el párrafo 475 y siguientes), las habituales existen en cualquier verbo” (Azkue 1891: 168). Nahasi samarra da Azkueren aditz teorian *uste oituek* betetzen duten lekua. Terminoa aditz-denboraz aritzean erabiltzen dituenen antzekoa da (“uste” hitza erabiltzen baitu, alegia); alabaina *-ten* “irazgaia” hartzen duten adizkiez “Aditz mugean aldamenak eta aldagaiak / Modificaciones y modificativos del verbo infinitivo” izeneko atalean dihardu (1891: 189). Bertan *-ten* hizkia “ekanduzko aldamera / modo habitudinario (habitual ó consuetudinario)” delakoa adierazteko bide bat izango litzateke, *oi* “aldagaiarekin” eta *eroan* edo *ioan* aditzak laguntzaile gisa erabiltzearekin batera (1891: 190). Hala eta guztiz ere, eta hona nahasmendurako beste arrazoi bat, Azkueren sisteman “aditz mugean aldagaiak” ez dira hizkiak edo “irazgaiak”, grafikoki bederen bereiz idazten diren hitzak baizik; “aditz irabiarikoen aldagaiak”, berriz, hizkiak dira beti (cf. 1891: 171). *-Ten* izango litzateke, hain zuzen ere, sistema honetako salbuespen bakarra. *Izkindeako* aditz-moduen sailkapenaz, ik. Madinabeitia (1999).

<sup>50</sup> Diodan, bidenabar, adizki mota hauek adierazitako denboren artean erabat bereizteak eta, ondorioz, adizki trinkoen premia osoa izateak berehalako eragina izan zuten. Honela bada, XX. mende hasieran zenbait autorek, Arana-Goiri buru zelarik, paradigma trinkoak asmatu zituzten sekula halakorik izan ez zuten aditzetarako (ik. Plazaola 1999).

<sup>51</sup> Sabino Arana-Goirik (1865-1903), euskal nazionalismoaren sortzailea izateaz gain, gramatika-lantxo batzuk idatzi zituen. Euskarari buruzko lanotan ortografiaren eta lexikoaren eraberritzeaz jardun zuen batik bat, irizpide logikazale eta garbizaleetan oinarritu zelarik.



Adiera kopulatiboaz ari delarik, Arana-Goirik Port-Royaleko lanen kutsu garbia erakusten du, azken buruan euskal partizipio bat adjektibo + *izan* formularen bitartez azaltzen baitu (oroit bedi §3 atalean esandakoa):

Como *copulativo*, el verbo *ixan* (ser) se resuelve con el verbo *haber*, el cual en Euskera se expresa con la raíz *eu*, que en su origen fue *au*; al efecto, no hay más que convertir en adjetivo abstracto el adjetivo concreto que en aquél significa el atributo. Así *Jaungoikoa da deun* (Dios es santo) es lo mismo que *deundasuna dau Jangoikuak* (Dios ha santidad). Más aún este *au* (haber) se resuelve a su vez con el *ixan* (ser): *Jaungoikua da deundasunaren eu-le* (Dios es *habente* de santidad).

Por esto, todos los demás verbos equivalen a *l + ixan*, representando con *l* el adjetivo que cada cual contiene, y sólo los transitivos a *l + au*. Así: *igan* (ascender) es *igale-ixan* (ser ascendente); *irakuñi* (leer) es *irakuñle-ixan* (ser leyente) y *bera irakuñi neuk* (leerlo yo) es *bera irakuñtzen au neuk* (haberlo yo en leerlo o leyendo), y *beraren irakuñle neu ixan* (ser yo leyente de ello). (Arana-Goiri 1991: 63)

Ohartarazi behar dut, hala ere, bere lanaren hurrengo orrialdeetan Arana-Goiri ez dela berriz analisi logiko honetaz baliatuko.

## 12 Ondorioak

Artikulu honetan erakutsi dut XIX. mendean euskal autore batzuek euskarak aditz bakarra duelako ustea aldeztu zutela, nork ozenki nork apalkiago. Nire iritziz, euskal gramatikagintzan honelako joera bat sortzeko arrazoi nagusiak ondoko hauek dira: lehenik, euskal gramatikagile gehienen helburu apologetikoa, euskararen aberastasun eta betegintzarrea erakutsi nahi baitzuten; bigarrenik, euskal aditzaren beraren egitura, non aldi berean aurkitzen baititugu paradigma analitiko bat —bereizkuntza gramatikal ugariago dituen eta aditz guztiek dutena— eta paradigma sintetiko bat —aditz bakan batzuetan baino ez dagoena—; azkenik, gramatika orokor eta filosofikoak gorpuztutako aditz bakarraren teoria, bereziki Ipar Euskal Herriko autoreengan, Frantziako tradizioan hezi baitziren, eragin zuzena izan zuena. Hortaz, aurkeztu ditudan autore askok euskal aditzean formalki gauzaturik ikusi uste zuten gramatikari filosofoek ikuspuntu erabat logiko batetik proposatu zuten analisi hura. Autoreon arabera, honelako aditz-sistema bakun eta erregular batek euskararen perfektutasuna frogatuko luke.

Halarik ere, aditz bakarra nola edo hala onartzen duten lanetan euskal aditzaren azterketa guztiak ez dira berdinak: zenbaitentzat benetako aditz bakarra ‘baieztapena’ edota ‘existentzia’ adierazten duen *izan* aditza da (Abbadie, Chaho, Azkue); beste batzuek bitan —*izan* eta *\*edun*— banatzen den aditz bat proposatzen dute (Darrigol eta Inchauspe, aldeak alde); errorik gabeko aditza ikusten duenik ere badago (Bonaparte);

azkenik, formulazio argiegirik ematen ez duten Humboldt eta Arana-Goiri aipa litezke. Gainerako aditzak ez dira egiazko aditzak, izenak + *izan* (edo *\*edun*) baizik; beraz, infinitiboa, partizipioa, etab. izenak edo adjektiboak dira. Bistan da, euskal aditz perifrastikoa oso egokia bide da aditz bakarraren teoria garatzeko eta orobat adizki jokatugabeak aditzat ez hartzeko, bi zatiak ongi bereizten direnez. Aitzitik, garai hartan kontrako joera batek adierazi zuen euskaraz edozein hitz bihur daitekeela aditz: Astarloa, Lécluse eta Zabala, besteak beste.

Gai honi loturiko autoreen zerrenda, haatik, ez litzateke osoa aditz bakarraren teoriaren aurka idatzi zutenak ere aipatuko ez banitu: alegia artikulua honetan ikusi ditugun autore gehienei Willem Jan van Eysek (1867, 1874, 1875, 1879) eta Julien Vinsonek (1872, 1874a, 1874b) egin zizkieten kritika gogorrenak. Berauen ustez, euskal aditzak erro desberdinak ditu, nahiz eta laguntzaileak bi multzotan bana daitezkeela onartzen duten. Bestalde, ez dugu ahaztu behar aditz bakarraren aldeko analisitik abiatu zirela XIX. mende hondarrean euskal aditzaren pasibotasuna aldarrikatu zuten autoreak (ik. Oyharçabal 1991, Gómez 2001).

Amaitzeko, aditz bakarraren inguruan interesgarri gerta daitezkeen beste aztergai batzuk aipatu nahi nituzke. Esate baterako, autoreok aurkeztutako aditz-sistema hain logiko eta erregular bat izateak euskara ikasterakoan ekarri ahal dituen onura eta abantaila; Darrigolek eta Inchauspek aipatzen dute alderdi hau. Beste gai jakingarri bat izan liteke adizki trinkoak laburketatzat hartzen dituzten autoreak eta adizki trinkoak hurbileko forma perifrastikoen baliokidetzat (*nator = etortzen naiz*) hartzen dituzten autoreak erkatzea.

## **Bibliografia:**

- Abbadie, Antoine Th., 1836. "Prolegomènes", in Abbadie & Chaho 1836, 1-50.
- Abbadie, Antoine Th. & Joseph Augustin Chaho, 1836. *Études grammaticales sur la langue euskarienne*. Paris: A. Bertrand.
- Alberdi, Javier, 1989. "Euskararen morfologiazko ikerketak (1900-1936)". *ASJU* 23:3.769-796.
- Anderson, John [M.], 1973. *An Essay Concerning Aspect: Some Considerations of a General Character Arising from the Abbe Darrigol's Analysis of the Basque Verb*. The Hague/Paris: Mouton.
- Arana Martija, José Antonio, 1983. *Resurrección María de Azkue*. (Colección "Temas Vizcaínos", 103-104). Bilbao: Caja de Ahorros Vizcaína.
- Arana Martija, José Antonio, 1989. *L. L. Bonaparte. Eskuizkribuak-argitarapenak / Manuscritos-publicaciones*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Arana-Goiri, Sabino, 1991 [ca. 1888]. "Estudio gramatical sobre el verbo bizkaino", in J. M<sup>a</sup> Alday (arg.), *Historia del nacionalismo vasco en sus documentos*, IV, 23-86. Bilbo: Eguzki.
- Arnauld, Antoine & Claude Lancelot, 1660. *Grammaire générale et raisonnée*. Paris. [Berrargit. faksim. Stuttgart/Bad Cannstatt: F. Frommann, 1966.]
- Arnauld, Antoine & Pierre Nicole, 1662. *L'art de penser: la logique de Port-Royal*. Paris. [Berrargit. faksim. Stuttgart/Bad Cannstatt: F. Fromman, 1965-1967.]
- Astarloa, Pablo Pedro, 1883 [1805]. *Discursos Filosóficos sobre la lengua primitiva ó Gramática y análisis razonada de la euskara ó bascuence*. Bilbao: P. Velasco. [Berrargit. faksim. Bilbo: Amigos del Libro Vasco, 1988.]
- Auroux, Sylvain (arg.), 1992. *Histoire des idées linguistiques. Tome 2: Le développement de la grammaire occidentale*. Liège: Mardaga.
- Auroux, Sylvain & Geneviève Clérico, 1992. "France", in Auroux (arg.) 1992, 359-386.
- Azkue, Resurrección M<sup>a</sup>, 1891. *Euskal-Izkindea. Gramática eúskara*. Bilbo: J. de Astuy.
- Azkue, Resurrección M<sup>a</sup>, 1905-1906. *Diccionario vasco-español-francés*. Bilbao/París. [Berrargit. faksim. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1969, eta Bilbo: Euskaltzaindia, 1984.]

- Azkue, Resurrección M<sup>a</sup>, 1925. *Morfología vasca*. Bilbo: Euskaltzaindia. [Lehen argit. *Euskera* 4, 5, 6:1. Berrargit. faksim. Bilbo: LGEV, 1969, 3 lib.]
- Beauzée, Nicolas. 1767, *Grammaire générale, ou Exposition raisonnée des éléments nécessaires du langage, pour servir de fondement à l'étude de toutes les langues*. Paris: J. Barbou. [Berrargit. faksim. Stuttgart/Bad Canstatt: Frommann/Holzboog, 1974.]
- Bonaparte, Louis-Lucien, 1862. *Langue basque et langues finnoises*. Londres: Strangeways & Walden.
- Bonaparte, Louis-Lucien, 1869. *Le verbe basque en tableaux, accompagné de notes grammaticales, selon les huit dialectes de l'euskara*. Londres: Strangeways & Walden. [Berrargit. faksim. Bonaparte 1992, I, 175-442.]
- Bonaparte, Louis-Lucien, 1876. "Remarques sur plusieurs assertions de M. Abel Hovelacque concernant la langue basque, accompagnées d'observations grammaticales et bibliographiques". *Revue de Philologie et d'Ethnologie* 2:3. [Aipamenak separatari dagozkio: Londres: Strangeways, 1876.]
- Bonaparte, Louis-Lucien, 1877. "Remarques sur certaines notes, certaines observations et certaines corrections, dont M. J. Vinson a accompagné l'Essai sur la langue basque par F. Ribáry". *Actes de la Société Philologique* 7:2. 51-115. [Aipamenak separatari dagozkio: Londres: Strangeways, 1877.]
- Bonaparte, Louis-Lucien, 1884. *Nouvelles remarques sur quelques assertions de M.J. Vinson concernant la langue basque*. Londres.
- Bonaparte, Louis-Lucien, 1992. *Opera Omnia Vasconice*. J. A. Arana Martija (arg.). Bilbo: Euskaltzaindia. 4 lib.
- Campión, Arturo, 1884. *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara*. Tolosa: E. López. [Berrargit. faksim. Bilbo: LGEV, 1977, 2 lib.]
- Chaho, Joseph Augustin, 1836a. "Grammaire euskarienne", in Abbadie & Chaho 1836, 1-184 [51-234].
- Chaho, Joseph Augustin, 1836b. *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques (1830-1835)*. Paris: A. Bertrand. [Bigarren argit. Baiona: P. Lespès, 1865. Badira gaztelaniazko itz. batzuk: M. de Anguiozarren itz. [R. de Berraondoren ezizena], *RIEV* 20 (1929), 105-127, 182-206, 350-377, 460-493; 21 (1930), 98-151; liburu gisa

- berrargit.: Donostia: Auñamendi, 1976; J. Gárateren itz., Bilbo: Imp. Moderna, 1933; X. Mendigurenen itz., Donostia: Txertoa, 1976.]
- Charencey, Hyacinthe de, 1873. “Sur l’existence de racines verbales en basque”. *RLPhC* 5.389-395.
- Charencey, Hyacinthe de, 1874. “Recherches sur la nature et le mode de formation du verbe basque”. *RLPhC* 6.337-351.
- Charencey, Hyacinthe de, 1875. “Une dernier mot de réponse à M. Vinson sur le verbe basque”. *RLPhC* 8.73-80.
- [Darrigol, Jean-Pierre], s.d. [1827]. *Dissertation critique et apologétique sur la langue basque, par un ecclésiastique du diocèse de Bayonne*. Baiona: Duhart-Fauvet.
- Dominicy, Marc, 1992. “Le programme scientifique de la grammaire générale”, in Auroux (arg.) 1992, 424-441.
- Donzé, Roland, 1967. *La grammaire générale et raisonnée de Port-Royal. Contribution à l’histoire des idées grammaticales en France*. Berna: A. Franke. [Gazt. itz. Buenos Aires: Eudeba, 1973.]
- Eusko Ikaskuntza - Euskaltzaindia, 1998. *Antoine d’Abbadie 1897-1997. Congrès International. Eusko Ikaskuntza. Ezohizko Kongresua. Euskaltzaindia. XIV. Biltzarra. (Hendaye-Sare 1997)*. Hendaia/Bilbo: Eusko Ikaskuntza/Euskaltzaindia.
- Gómez, Ricardo, 1989. “Bonaparte printzearen inguruko hizkuntz eztabaidak”. *ASJU* 23:2.355-392. [Berrargit. in Gómez & Lakarra (arg.) 1992, 429-466.]
- Gómez, Ricardo, 1996. “La aportación de W. von Humboldt a la gramática vasca”. *RIEV* 41:2.607-622.
- Gómez, Ricardo, 1999. “El verbo en movimiento: una teoría sobre el verbo vasco de comienzos del XIX”, in M. Fernández, F. García & N. Vázquez (arg.), *Actas del I Congreso Internacional de la Sociedad Española de Historiografía Lingüística*, 347-360. Madril: Arco/Libros.
- Gómez, Ricardo, 2001. “Objektu-komunztadura XIX eta XX. mendeetako euskal gramatikan”, in B. Fernández & P. Albizu (arg.), *Kasu eta komunztaduraren gainean. On Case and Agreement*, 167-194. Bilbo: UPV-EHU.
- Gómez, Ricardo, 2002a. “La teoría del ‘verbo único’ en la gramaticografía vasca del s. XIX”, in M. Á. Esparza, B. Fernández & H.-J. Niederehe (arg.), *SEHL 2001. Estudios de Historiografía Lingüística. Actas del III Congreso Internacional de la Sociedad*

- Española de Historiografía Lingüística. Vigo, 7-10 de febrero de 2001. Tomo I: Gramaticografía*, 179-196. Hamburgo: H. Buske.
- Gómez, Ricardo, 2002b. “Los inicios de la vascolología en Holanda: El *Essai de grammaire de la langue basque* de Willem J. van Eys (1865, 1867)”, in X. Artiagoitia, P. Goenaga & J. A. Lakarra (arg.), *Erramu boneta: Feitschrift for Rudolf P. G. De Rijk*, 277-298. Bilbo: UPV-EHU.
- Gómez, Ricardo & Joseba A. Lakarra (arg.), 1992. *Euskalaritzaren historiaz, I: XVI-XIX. mendeak*. (ASJU-ren gehigarriak, 25). Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia/UPV-EHU.
- Gómez, Ricardo & Koldo Sainz, 1995. “On the Origin of the Finite Forms of the Basque Verb”, in Hualde, Lakarra & Trask (arg.) 1995, 235-274.
- Gómez Asencio, José Jesús, 1985. *Subclases de palabras en la tradición española (1771-1847)*. Salamanca: Universidad de Salamanca.
- Gutierrez, Iratxe, 1999. “Azkue eta Astarloa erkaketan: Aditz trinkoak”. Vitoria-Gasteiz: UPV-EHUko eskuizkribu argitaragabea.
- Harnois, Guy, 1929. *Les théories du langage en France de 1600 à 1821*. Paris: Les Belles Lettres.
- Harriet, Martin, 1741. *Gramatica escuaraz eta francesez, composatua francez hitzcunça ikhasi nahi dutenen faboretan*. Baiona: Fauvet Alarguna eta J. Fauvet.
- Hualde, José Ignacio, Joseba A. Lakarra & Robert L. Trask (arg.), 1995. *Towards a History of the Basque Language*. Amsterdam/Philadelphia: J. Benjamins.
- Humboldt, Wilhelm von, 1817. *Berichtigungen und Zusätze zum ersten Abschnitte des zweiten Bandes des Mithridates über die Cantabrische oder Baskische Sprache*. Berlin: Vossischen Buchhandlung. [Gazt. itz.: Gárate, Justo, 1933-34. “Correcciones y adiciones a la 1ª Sección del segundo volumen de la obra intitulada el *Mithridates* sobre la Lengua Cantábrica ó Vasca por Guillermo de Humboldt en Berlín año de 1817, en la Librería de Voss”. *RIEV* 24.460-487; 25.87-126.]
- Humboldt, Wilhelm von, 2001. *Baskische Grammatik* [on-line]. Wilhelm von Humboldt Edition Project. <<http://www-gewi.kfunigraz.ac.at/humboldt/txt/BAST0002.html>>.
- Iglesias, Manuel, 1991. *La voz en la gramática española*. (Contextos, 9). Leon: Centro de Estudios Metodológicos e Interdisciplinares/Universidad de León.

- Inchauspe, Emmanuel Th., 1858. *Le verbe basque*. Baiona/Paris: Lamaignère/B. Duprat. [Berrargit. faksim. Donostia: Hordago, 1979.]
- Juaristi, Jon, 1984-85. “Joseph-Augustin Chaho: las raíces antiliberales del nacionalismo vasco”. *Cuadernos de Alzate* 1.72-77.
- Laka, Itziar, 1986. “*Euskal Izkindeako* aditza (Hiperbizkaieraren historiaz II)”. *ASJU* 20:3.705-754.
- Lakarra, Joseba A., 1987. “Lécluse-ren euskal gramatika. Euskalaritzaren historiarako lanabesak (I)”. *ASJU* 21:3.813-916.
- Lakarra, Joseba A. (arg.), 1992. *Manuel de Larramendi. Hirugarren mendeurrena (1690-1990)*. Andoain: Andoaingo Udala/Euskaltzaindia/Gipuzkoako Foru Aldundia/Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila.
- Lakarra, Joseba A. & Blanka Urgell, 1988. “Lécluseren hiztegia. Euskalaritzaren historiarako lanabesak (II)”. *ASJU* 22:1.99-211.
- Larramendi, Manuel, 1729. *El imposible vencido. Arte de la lengua bascongada*. Salamanca: A. J. Villagorde. [Berrargit. faksim. Donostia: Hordago, 1979.]
- Lécluse, Fleury, 1826. *Manuel de la langue basque*. Tolosa/Baiona: J. M. Douladoure/L. M. Cluzeau. [Berrargit. in Lakarra 1987 eta Lakarra & Urgell 1988.]
- Madinabeitia, Larraitz, 1999. “Moduaren banaketa Azkueren *Euskal-Izkindea* gramatikan”. Vitoria-Gasteiz: UPV-EHUko eskuizkribu argitaragabea.
- Mitxelena, Koldo, 1981, “Lengua común y dialectos vascos”, *ASJU* 15.291-313. [Berrargit. in Mitxelena (1987), 35-55.]
- Mitxelena, Koldo, 1987. *Palabras y textos*. Bilbo: UPV-EHU.
- Mitxelena, Koldo, Julio Caro Baroja & Antonio Tovar, 1966. *Don Resurrección María de Azkue, lexicógrafo, folklorista y gramático*. Bilbo: Junta de Cultura Vasca.
- Oihenart, Arnould, 1638/1656. *Notitia utriusque Vasconiae tum Ibericae tum Aquitanicae*. Paris: S. Cramoisy. [2. argit. gehitua, 1656. Gazt. itz., 2. argit.-ean oinarritua eta J. Gorosterratzuk moldatua, *RIEV* 17 (1926); 18 (1927); 19 (1928). Berrargit. faksim. Gorosterratzuren itzulpen osatuarekin eta R. Ciérvideren sarrerarekin, Gasteiz: Eusko Legebiltzarra, 1992.]
- Oyharçabal, Beñat, 1991. “Note sur les antécédents romantiques de la théorie de la passivité du verbe dans les études euskariennes”. *ASJU* 25:3.965-975.

- Oyharçabal, Beñat, 1998. “A. Abbadieren euskal gramatikari buruzko ideiak eta ordu arteko euskal gramatikagintza”, in *Eusko Ikaskuntza & Euskaltzaindia 1998*, 431-451.
- Plazaola, Estepan, 1999. “Aranatarren eskolak aditz trinkoa bultzatzeko egindako ahalegina”. Vitoria-Gasteiz: UPV-EHUko eskuizkribu argitaragabea.
- Suárez, M<sup>a</sup> Castillo, 2000. “Laguntzaileak Bonaparterengan: puruak vs. errodonak”. *Sancho el Sabio* 13.57-76.
- Trask, Robert L., 1997. *The History of Basque*. Londres/New York: Routledge.
- Urgell, Blanca, 2000. *Larramendiren Hiztegi Hirukoitzaren osagaiez*. Vitoria-Gasteiz: UPV-EHU. Doktorego-tesi argitaragabea.
- Urkizu, Patri, 1992. “XVIII. mendean Larramendiren *Hiztegi Hirukoitzak* iparraldeko zenbait idazlerengan duen eraginaz”, in Lakarra (arg.) 1992, 313-324.
- Urkizu, Patri, 2002. *Anton Abbadia 1810-1897. Biografia saioa*. Bilbo: Bilboko Udala.
- van Eys, Willem J., 1867. *Essai de grammaire de la langue basque. Deuxième édition revue et augmentée*. Amsterdam: C. M. van Gogh.
- van Eys, Willem J., 1874. *Le verbe auxiliaire basque*. Paris: Maisonneuve.
- van Eys, Willem J., 1875. *Étude sur l'origine et la formation des verbes auxiliaires basques*. Paris: Maisonneuve.
- van Eys, Willem J., 1879. *Grammaire comparée des dialectes basques*. Paris: Maisonneuve.
- Villasante, Luis, 1979. *Historia de la literatura vasca*. Oñati: Ed. Franciscana. Bigarren arg. berrikusi eta osatua. [Lehen arg. Bilbo, 1961.]
- Vinson, Julien, 1867. “Coup d’oeil sur l’étude de la langue basque”. *RLPhC* 1.381-405.
- Vinson, Julien, 1872. “L’étude de la langue basque: les publications récentes du prince L.-L. Bonaparte”. *RLPhC* 5.190-219.
- Vinson, Julien, 1874c. “Le verbe basque”. *RLPhC* 6.238-253.
- Vinson, Julien, 1874d. “Encore le verbe basque”. *RLPhC* 7.99-109.
- Wells, Rulon S., 1987. “The Life and Growth of Language: Metaphors in Biology and Linguistics”, in H. M. Hoenigswald & L. F. Wiener (arg.), 1987. *Biological Metaphor and Cladistic Classification. An Interdisciplinary Perspective*, 39-80. Philadelphia: University of Pennsylvania Press.



- Wheeler, Garon, 1995. "Port-Royal Tradition of General Grammar", in E. F. K. Koerner & R. E. Asher (arg.), 1995. *Concise History of the Language Sciences: From the Sumerians to the Cognitivists*, 169-174. Oxford/New York: Pergamon.
- Zabala, Juan Mateo, 1848. *El verbo regular vascongado del dialecto vizcaino*. Donostia: I. R. Baroja.